

1. (1536)



1. (1536)

1.1.1. Joan Perez Idiakaitz-Likikoak presetarako harriez egindako kontratuak

- 1536-I-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, eta, bestetik, Debako Domingo Arretxe eta Joan Egaña harginak.

Liliko Joan Perez jaunak karez eta harriz presa eraiki nahi zuen, eta horretarako Getariako Garate mendian, Abeta, Altzuza eta ondoko baserrien inguruetan harriak atera eta landu egingo zituzten.

Harrien ezaugarriak eta neurriak ere zehaztu zituzten. 300 beso luze osatzeko harri karratuak egingo zituzten (paralelepipedo formakoak), 350 beso luze osatzeko harri “txapatuak”, estalkirako 70 harri, 24 giltzarri eta giltzarrien gainerako 8 harri. Beso nagusiaz neurtuko zituzten harriak, presak eraikitzeke ohi zen bezala.

Joan Perezek 11 marai ordainduko zizkien paralelepipedo formako harrien beso bakoitzeko, eta harri “txapatuzko” beso bakoitzeko 16 marai. Estalkirako harri bakoitzagatik 105 marai ordainduko zien, eta giltzarrien gainekoengatik 90na marai.

Joan Perezek egun hartan 30 dukat aurreratu zizkien bi harginei, eta gainerakoa hurrengo ekaineko San Joan egunean, lanak amaitutakoan, ordainduko zien. Lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Joan Martinez Lilikoa eta Joan Arbestain (edo Joan Akoa), eta Zumaiako Martin Larrabetzu (ikus [XVI. m. (36-I) 5] agiria).

- 1536-IV-9an, Zestoako zubiko portalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Debako Domingo Etxenagusia eta Joan Egaña harginak, eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Joan Perezek harginei 24 dukat eman zizkien, Liliko presarako lehen egindako kontratuaren arabera harriak atera eta lantzeagatik. Lehenago Joan Perezek beste 30 dukat

ordaindu zizkien. Lekuko Zestoako Esteban Eztiola, Julian Olazabal eta Anton Arretxe izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 5] agiria).

- 1536-IV-15ean, Zestoako Lilin, Aiako Nikolas Urozperoeta eta Martin Urozperoeta anaia, Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoarekin elkartu ziren. Blas Artazubiaga eskribaua zuten aurrean. Aiarrek Joan Perezi Getariako Garate menditik (Abeta eta Altzuza baserrien ingurutik), Domingo Etxenagusia eta Joan Egaña harginek atera eta landutako harriak Liliko presaraino garraiatuko zituzten.

100 gurdikada harri landu eramango zituzten hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunerako, eta gainerakoa handik urtebeteko epean. 21 marai kobratuko zituzten garraiatutako luzera-unitateko beso bat harriagatik. Harri motak eta beren neurri eta ezaugarriak ere zehaztu zituzten. Bideak garraiatzaileek beren kontura egingo zituzten, Joan Perezek horretarako 3,5 dukat emanda.

Joan Perezek une hartan aiarrei 50 dukat eman zizkien egingo zuten lanaren kontura, eta hurrengo San Miguel egunerako beste 12 dukat emango zizkien. Gainerakoa lanak amaitutakoan ordainduko zien. Garate mendian jasotako harrien kontua emango zuten, eta gero presan deskargatzen zenarena ere bai.

Kontratu-agirian lekuko batzuk hauek izan ziren: Julian Olazabal, Domingo Arretxe eta Migel Agineta (ikus [XVI. m. (36-IV) 7] agiria).

- 1536-VI-14an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek bildu ziren: Arroako Domingo Etxenagusia (edo Arretxe) eta Joan Egaña harginak, eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Lehenago, 1536-I-14an egindako kontratuaren arabera (ikus [XVI. m. (36-I) 5] agiria), bi harginek Getariako Garate mendian agindutako hareharrizko harriak atera eta landu egin zituzten, Liliko presa eraikitzeke. Joan Perezek



1.1. irudia.
Sastarraingo presa.

lan osoagatik 70 dukat ordaindu zien, eta harginek ordainagiria eman zioten. Lekuko Joan Martinez Lilikoa apaiza, Martin Zegama eta Joan Akoa izan ziren.

Jarraian, leku berean eta eskribau beraren aurrean, bi harginek eta Joan Perezek beste kontratu bat egin zuten. Sastarraingo presan beharko ziren harriak (kareharriak) atera eta lantzeko. Sastarrain ingurutik aterako ziren kareharriak, gurdia bertara joateko moduko lekuetatik.

330 harri neurri eta forma batekoak izango ziren, eta 350 beso luze paralelepipedo formakoak. Neurriak zehaztuta geratu ziren kontratuan. Lan osoa hurrengo otsailaren bukaerarako amaituta egongo zen. Harri mota bateko beso edo luzera-neurri bakoitzeko 6 txanpon (1 txanpon = 15 sos) ordainduko zuen Joan Perezek, eta beste motako harria beso bakoitzeko 2,5 txanpon.

Joan Perezek bi harginei 32 dukat aurreratu zizkien, egingo zuten lanaren kontura. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza, Joan Akoa eta Martin Izarraga (ikus [XVI. m. (36-VI) 3] agiria).

- 1536-X-31n, Zestoa, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Aiako Nikolas Urozperoa eta Zarauzko Martin Urozperoe-

ta elkartu ziren. Lehenago egindako kontratuaren arabera (ikus [XVI. m. (36-IV) 7] agiria), bi anaiek Getariako Garate menditik Liliko presaraino landutako harriak garraiatu behar zituzten. Garraioa ordaintzeko Joan Perezek, kontratuaren arabera, iragandako San Migel egunean kostuaren zati bat, 12 dukat, ordaindu behar zien. Horixe egin zuen egun hartan, eta bi anaiek ordainagiria eman zioten. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Migel Artazubiaga eta Esteban Eztiola izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 19] agiria).

1.1.2. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak emandako ahalordeak

- 1536-II-24an, Zestoa, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ahalordea eman zion Martin Artzuriagari, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Martin Joan Mendiak eskubidea zeukan Zarauzko alkabaletatik urtero Kontzejuari 1.000 marai kobratzeko, baina Inkisizioak konfiskatu egin zizkion ondasunak. Harrezkero, errege-pribilegioaz, urtero 1.000 marai haiek kobratzeko eskubidea Joan Perezek zuen.

Ondorioz, Martin Artzuriagak 1534. eta 1535. urteetako 2.000 maraiak Zarauzko Kontzejuari kobratzeko zizkion. Lekuko Pedro Artzubiaga, Joan Garraiza eta Martin Zubiaurre izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Perezek ahalordea eman zion Burgosko Joan Ortega de Curiel jaunari. Lehenbizi Domenja Lili amak eta gero Joan Perezek, eskubidea zuten Burgosko hirian alkabaletatik urtero 60.000 marai kobratzeko. 1936. urteari zegozkionak kobratzeaz arduratuko zen Joan Ortega jauna (ikus [XVI. m. (36-II) 8] agiria).

- 1536-IV-26an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu zen. Joan Perezek auzia zuen Gasteizko Alonso Bilbao jaunarekin (Valladolidko Kantzelaritzako prokuradorearekin) lursailen, garien eta diruen tratuatik. Gasteizen eta beste edonon Joan Perezen izenean auziaren jarraipena egin zezaten, zestoarrak ahalordea eman zien Esteban Eztiola eskribauari eta Martin Esteban Makatzagari.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Aisoro (Zestoako elizako bizialdirako bikarioa), Domingo Lizarrarats eta Pedro Baltzola (ikus [XVI. m. (36-IV) 13] agiria).

- 1536-V-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu zen. Ahalordea eman zion Zestoako Martin Esteban Makatzagari, Valladolidko hiribildura joan eta maiatz hartan Joan Perezen truke-letrak eta zedulak (Valentzian igorritakoak) kobra zitzaizkion. Joan Perezen izenean, letrak protestatzeko, trukatzeko eta birtukatzeko ahalmena izango zuen, eta ordaintzen ez zutenak auzitara eramateko ere bai.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Aisoro (Zestoako elizako bikarioa), Klemente Aisoro apaiza eta Pedro Artazubiaga (ikus [XVI. m. (36-V) 9] agiria).

- 1536-VII-9an, Zestoako Lilin, bertako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa ahalordea eman zion Jakobo Ipintza zestoarrari. Blas Artazubiaga eskribauak idatzi zuen agiria Joan Artsuaga, Martin Esteban Makatzaga eta Julian Lizarrarats lekukoen aurrean.



1.2. irudia. Zarauzko Makatzaga etxea.

Jakobo Ipintza Valladolidko Medina del Campora joango zen, “maiatzeko feria” izenekora, eta han, Valentzian Joan Perezen alde igorritako truke-letrak eta zedulak kobratzen saiatuko zen. Letrak protestatzeko, trukatzeko eta birtrukatzeko ahalmena zuen; baita ordaintzen ez zutenak auzitara eramateko ere (ikus [XVI. m. (36-VII) 5] agiria).

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Perezek ahalordea Pedro Menari eta Amador batxilerrari eman zien. Lehenago Inkisizioak Martin Joan Mendiari ondasunak konfiskatu egin zizkion. Joan Perezek Martin Joanek Zarauzko alkabaletatik urtero 1.000 marai kobratzeko zeukan eskubidea erosi zuen (ikus [XVI. m. (36-II) 8] agiria). Erosketa-agiria Nafarroako erreinuko eta Kalagorriko elizbarrutiko Inkisizioaren Diego Manrique eskribauak idatzi zuen.

Pedro Menak eta Amador batxilerrak erosketa hura baieztatu, eskubidea Joan Perezen izenera pasatu eta pribilegioa ateratzen saiatuko ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 5] agiria).

- 1536-X-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak azaldu zen. Joan Perezek lehen Martin Joan Mendia zarautzarrak bertako Kontzejuko alkabaletatik urtero 1.000 marai jasotzeko zeukan eskubidea bereganatu egin zuen (ikus [XVI. m. (36-II) 8] eta [XVI. m. (36-VII) 5] agiriak). Eskubidea lehenbizi Martin Joan Mendia aitak eduki zuen, eta hil zenean Martin Joan Mendia semeak. Gero Inkisizioak konfiskatu egin zikzion ondasunak, eta ondoren bereganatu zuen 1.000 marai jasotzeko eskubidea Joan Perez zestoarrak.

Joan Perezek ahalordea eman zien Zestoako Joan Arbestaini (edo Joan Akoari) eta Martin Esteban Makatzagari, Zarautzen bertako alkatearen aginpideaz baliatuta adineko zenbait lekukori deitu eta testigantzak jaso ziezazkieten. Martin Joan Mendia aitarengandik eskubidea izen bereko semearengana (beste inork horretan parterik izan gabe) pasatu zela eta gero Inkisizioaren esku egonda Joan Perezek bereganatu zuela frogatuko zuten.

Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Arrona, Martin Amilibia eta Joan Martinez Lilikoa (ikus [XVI. m. (36-X) 3] agiria).

- 1536-XII-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ahalordea eman zion Burgosko Joan Ortega de Curiel jaunari. Lehenbizi Domenja Lili zenak eta gero Joan Perez semeak, eskubidea zuten errege-pribilegioaz Burgosko hiriko alkabaletatik urtero 60.000 marai jasotzeko. Joan Ortegak jasoko zituen 1537. urteari zegozkionak ahalorde haren bidez. Auzitara jotzeko ahalmena zuen Joan Ortega jaunak.

Agirian lekuko Martin Zubiaurre, Joan Garratza eta Beltran Urbieta izan ziren.

Jarraian, leku berean eta eskribau zein lekuko berak aurrean zirela, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak ahalordea eman zien Esteban Eztiola eskribauari eta Martin Esteban Makatzaga zestoarrei. Bi zestoarrak Burgosa joango ziren eta Joan Ortega de Curiel jaunarengandik Burgosko hiritik Joan Perezek 1535. urtean eta aurreko urteetan kobratzea zegokiona jasoko zuten. Bi zestoarrek auzitara eraman ahal izango zituzten zordunak (ikus [XVI. m. (36-XII) 5] agiria).

1.1.3. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren gainerako agiriak

- 1536-I-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Debako Joan Baltzola. Lehenago Martin Olaskoagak bere aita Kristobal Olaskoagarekin eta anaia Pedro Olaskoagarekin 20 dukat maileguz hartu zizkioten Joan Perezi. Egun hartan, ordea, zorrean Martini zegozkion 10 dukatak urtebete barru ordaintzeko obligazioa Joan Baltzolak hartu zuen bere gain. Joan Perezek ordainagiria eman zion Martin Olaskoagari 10 dukatengatik. Beste 10 dukatak Kristobalek eta Pedrok ordainduko zizkioten.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joanes Ibañeta, Martin Esteban Makatzaga eta Fernando Olazabal (ikus [XVI. m. (36-I) 3] agiria).

- 1536-II-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Aizarnazabalgo San Migel elizako Domingo Intxaurregi administratzailea. Joan Perezek Domingori haren ama Domenja Lilik testamentuan elizarentzat agidutako 2 dukatak ordaindu zizkion. Domingok ordainagiria eman zion. Lekuko Pedro Baltzola, Domingo Artazubiaga eta Pedro Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-II) 7] agiria).

- 1536-IV-15ean, Zestoako zubiko portalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek azaldu ziren: Katalina Etorra bere seme Joan Etorrarekin, eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak. Ama-semeek Joan Perezi 6 dukat maileguz hartu zizkioten, eta zorra

1.3. irudia. Etorrazar baserria.



hurrengo ekaineko San Joan egunerako ordainduko zioten. Joan Etorrak, adingabea zelako, zin egin zuen agiriak zioenari aurka ez ziola egingo. Lekuko Lope Ernantaritz, Martin Lizarrarats eta Txomin Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 8] agiria).

- 1536-IV-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Lazkano segurarra azaldu ziren. Joan Perezek 12 dukat maileguz eman zizkion, eta segurarrak hurrengo ekaineko San Joan egunerako ordainduko zion zorra. Lekukoak Klemente Aisoro, Joan Arrona eta Joan Artzuriaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 14] agiria).

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Debako Olazabalen etxe berrian bizi zen Sebastian Lazkano eta anaia Joan Lazkano segurarra elkartu ziren. Joaneke anaiarentzat eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoarentzat lan egin zuen, aurreko urtean egindako kontratua-
ren arabera (ikus [XVI. m. (35-X) 7] agiria). Bi anaien arteko tratua eta harremanen kontuak egin eta garbitu egin zituzten, eta ondorioz, Joan Lazkanok anaiari ordainagiria eman zion (ikus [XVI. m. (36-IV) 14] agiria).

- 1536-V-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Joan Larretzek eta

Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak tratua egin zuten. Joan Perezek Debako Kontzejuari zenbait mendi hartu zion, eta Joan Larretzek mendi haietan 340 karga ikatz egingo zizkion hurrengo martxoko Andre Mariaren egunerako. Oraiturria zeharbidez azpitik 60 karga ikatz egingo zizkion, Beliosorotik gorako elutsean 120 karga, Uztapidetik Beibatlarre-
rako elutsean 100 karga, Larrazabalgo bidez goitik beste 20 karga, eta aipatutako leku horien inguruetan beste 40 karga.

Joan Larretzek egun hartan 18 dukat kobratu zituen, hau da, egingo zituen ikatz guztien balioa. Huts egiten bazuen, Joan Perez sortutako kalte guztiak ordaindu beharko zizkion. Kontratua lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza, Joan Ipintza eskribaua, Joan Arrona eta Joango Ernataritz (ikus [XVI. m. (36-V) 13] agiria).

- 1536-V-25ean, Errezilgo Iturriotzen, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa zestoarrak dukata eman zion Domingo Idoieta aiarrari. Domingo, hain zuzen, Errezilgo Iturriozko San Joango ermitako administratzailea zen, eta Joan Perezek ama Domenja Lili zenak testamentuan agindutako dukata eman zion. Domingok Joan Perezeari ordainagiria eman zion.



1.4. irudia. Bedamako Linatzetagoikoa.

Lekuko Azpeitiko Joan Garmendia eta Aiako Pedro Gerra eta Anton Altamira izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 14] agiria).

- 1536-V-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribaua aurrean zutela, Muskizko Pedro Santelices eta Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa elkartu ziren. Pedrok Joan Perezi Portugaletetik ekarrita 1.100 kintal burdin mea utziko zizkion Beduako errenterian. Bere itsasontzian bi bidaia egingo zituen, eta bakoitzean 550 kintal ekarriko zizkion. Dena hurrengo San Joan egunerako emango zion.

Kintal bakoitzak 27 marai balioko zituen, eta Joan Perezek 12 dukat aurreratu zizkion. Lehen bidaia egin zuenean, Joan Perezek Pedrori 550 kintalen balioa ordainduko zion, eta bigarren bidaia egindakoan deskontatuko zituen aurreraturiko 12 dukatak. Lekuko lau zestoar hauek izan ziren: Martin Lizarrarats, Domingo Artazubiaga, Julian Lizarrarats eta Frantzisko Artzubiaga.

Ondoren, Lili jauregian, eskribau berarekin Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Errezilgo Joan Zabala zurgin-maisuak kontratua egin zuten. Joan Zabalak Legoiaga baserriak zuen zati zaharra bota eta berritu egingo zuen. Bertan zegoen zur ona

hartu eta falta zena Joan Perezek hornituko zion. Erreteila egiteko baldintzak ere zehaztu zituzten. Abuztuko Andre Mariaren egunerako amaituko zituen Joaneke lanak, eta Joan Perezek 19 dukat ordainduko zizkion. Joan Perez nagusiak 10 dukat aurreratu zizkion.

Joan Zabalak Joan Perezi Bedamako Linatzetabekoa baserrian dolarea eraikiko zion, bertan zeuden mandio eta zurekin. Iraileko Andre Mariaren egunerako amaituko zituen zurginak lanak. Gero, bi ofizial zurginek lanak ikuskatu eta balioetsi egingo zituzten. Lanak hastean Joan Perezek 6 dukat ordainduko zizkion, eta gainerakoa lanak amaitutakoan emango zion. Lekuko Martin Zubiaurre, Martin Arano mandazaina eta Joan Artsuaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 17] agiria).

- 1536-VI-7an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Azpeitiko Martin Perez Erraztikoa elkartu ziren. Joan Perezek eta Martin Perezek egun hartara arte elkarrekin izandako tratuen kontuak garbitu zituzten. Ondorioz, elkarri ordainagiria eman zioten. Lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Jakobo Ipintza eskribaua eta Joan Artsuaga, eta Azpeitiko Joan Orbegozo (ikus [XVI. m. (36-VI) 2] agiria).

- 1536-VI-14an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Debako Kontzejuko Joan Matusin fiela elkartu ziren. Joan Matusinek Debako Kontzejuarentzat 6 dukat maileguz hartu zizkion Joan Perezi, eta zorra hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean ordainduko zion. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Domingo Etxenagusia (edo Arretxe) eta Joan Egaña izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VI) 4] agiria).

- 1536-VII-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Debako Joan Garatek Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari eman zion, zeren eta zestoarrak 20 dukat maileguz eman baitzizkion. Joan Garatek zorra urtebeteko epean ordainduko zion. Lekuko Joan Akoa, Martin Zulueta eta Domingo Etxeberria-Altzolarats izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 2] agiria).

- 1536-VII-7an, Zestoan, bertako alkate Esteban Artazubiagaren eta eskribau Blas Artazubiagaren aurrean Maria Joango Egaña eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu ziren. Maria Joangok zioenez, Domenja Lili zenak (Joan Perezen amak) zorretan utzi zizkion 33 txanpon. Diru hura seme Joan Perezi kobratu nahi zion. Han zegoen Margarita Lilik zioenez, hark Domenjari hil baino lehen entzun omen zion txanpon haiek Maria Joangori zor zizkiola.

Alkatearen aurrean zin egin zuten Maria Joango Egañak eta Margarita Lilik Domenak zor hura zeukala. Ondoren, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak 33 txanponak ordaindu zizkion Maria Joangori, eta honek ordainagiria eman zion. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Jakobo Ipintza eta Joango Amilibia zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 3] agiria).

- 1536-VII-8an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Joan Baltzolak obligazio-agiria eman zion Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari. Honek hari maileguz 6 dukat eman zizkion, eta debarrak zorra hilabete barru ordainduko zion. Lekukoetako bi Antonio Lizarrarats apaiza eta Pedro Baltzola zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 4] agiria).

- 1536-VIII-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Martinez Lilikoa, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Migel Artazubiaga (Kontzejuko fiela) bildu ziren. Joan Martinezek Zestoako Kontzejuari Altzolarats eta Bedama aldeko mendiak enkan-tean erosi zizkion, ikatza egiteko. Balioespenen arabera, 1.400 karga ikatz aterako zituzten handik. Orduan Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak mendi haien balio osoa, 42 dukat, Migel Artazubiagari ordaindu zion. Beraz, Joan Perezek jasoko zituen mendi haietako ikatzak.

Mendien balioespena egitea 3 dukat kostatu zen. Ondorioz, Kontzejuak 39 dukat hartu zituen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Ezenarro, Klemente Aisoro eta Martin Ondalde gaztea (ikus [XVI. m. (36-VIII) 1] agiria).

- 1536-VIII-30ean, Zestoako zubian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Ameznabar eta Migel Altzate ikazkinak eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu ziren. Joan Perezek Izarrizko Galtzadagoiena izeneko lekuan Azpeitiko Kontzejuari mendiak erosi zizkion, eta haietan aipatutako ikazkinek 300 karga ikatz egingo zizkieten: erdiak hurrengo Eguberrietarako, eta beste erdiak handik urtebetetarako. 24,5 marai balioko zuen karga ikatzak.

Joan Perezek egun hartan 8 dukat aurreratu zizkien, eta gainerakoa ikatza egin ahala ordainduko zien. Mendi haietan 300 karga baino gehiago ateratzerik baldin bazegoen, adierazitako epean eta prezioan dena egingo zuten ikatz. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza, Domingo Ezenarro eta Jakobo Ipintza eskribaua (ikus [XVI. m. (36-VIII) 4] agiria).

- 1536-VIII-14an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Azpeitiko Martin Perez Erraztikoa eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa azaldu ziren. Martin Perezek Joan Perezi, batetik 150 kintal burdina mehearen balioa, eta, bestetik, 100 kintal totxo burdina lodiaren balioa dirutan maileguz hartu zion. Azpeitiarrak burdina mehea hurrengo otsaileko Andre Mariaren egunean (Kandelerio egunean)



1.5. irudia. Zestoako parrokia. Lilitarren kaperako armarrria.

Beduako errenterian emango zion, eta burdina lodia hurrengo Domu Santu egunean, leku berean. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Arbestain (edo Joan Akoa), Pedro Olaskoaga eta Martin Izarraga.

Egun berean, Zestoako errebaletan, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa Arroako Joan Armendiarekin elkar-tu zen. 24 kintal totxo burdina lodiren balioa maileguz hartu zion arroarrak, eta zorra aipatutako burdinak Beduan hurrengo Domu Santu egunerako emanda ordainduko zion. Lekuko hauek izan ziren: Joan Arrona, Txomin Artazubiaga eta Joan Artzubiaga (ikus [XVI. m. (36-VIII) 6] agiria).

- 1536-X-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Martinez Lilikoa (Urdanetako erretorea) azaldu ziren.

Domenja Lili zenak (Joan Perezen amak) testamen-tuan agindutakoari jarraituz, Joan Martinezek Zes-toako elizan, Liliko kaperan, urtebetez egunero meza eman zuen Domenjaren arimaren alde. Ondorioz, Joan Perez semeak 12 dukat eman zizkion.

Joan Martinez apaizak zioenez, beste horrenbeste meza emanak zituen Joan Perez Idiakaizkoaren (Do-menjaren senar zenaren) arimaren alde, eta lehendik beste 12 dukat kobraturik zituen. Guztiaren ordainagiria eman zion Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Leku-koetako bi Fernando Olazabal medikua eta Aizarnaza-balgo Domingo Agirre erretorea izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 7] agiria).

- 1536-XI-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskri-bauarekin Iraetako Fernando Sorazabal olagizona eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa elkartu ziren. Joan Perez-ek Fernandori 30 kintal totxo burdinak balio zuena dirutan aurrez ordaindu zion, eta Fernandok hurrengo Eguberri egunerako aipatutako burdinak Liliko ola-txoan utziko zizkion.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Klemente Aiso-ro, Pedro Ziorraga eta honen morroi Domingo Goros-arri (ikus [XVI. m. (36-XI) 1] agiria).

1.1.4. Zestoako Kontzejuaren ahalorde eta agiriak

- 1536-I-20an, Aizarnako plazan, alkatea, ofizialak eta herritarrak bertan zirela, Blas Artazubiaga eskri-bau izanik, Zestoako Kontzejua bildu zen. Han Julian Olazabal azaldu zen, Martin Otazu eskribauaren bi-dez egindako ahalordeaz. Alonso Idiakaitz probestuak emana zen, eta Zestoako Kontzejuari eskea egin zion Julianek, probestuordetzat onar zezaten. Pedro Auso-roetxea eta Domingo Aranguren zestoarrak aurkeztu zituen fidatzaile gisa.

Julian Olazabalek zin egin zuen bere ofizioa zin-tzo beteko zuela. Kontzejuak probestuordetzat onartu zuen. Lekuko Pedro Iribarrena, Joan Urbieta eta Mar-tin Ondalde izan ziren (ikus [XVI. m. (36-I) 9] agiria).

- 1536-III-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Kontzejuak enkantea egin zuen kandela piztuta. Edarritzagako Altzerrekako mendiak eta Errezilgo partean Gallekuko saroiko mendiak ikatza egiteko eman zituen. Guztira 1.200 karga ikatz aterako zituen Beltran Arizmendik, gehien honek agindu zuelako. Edarritzagako karga ikatzagatik 23 marai ordainduko zituen, eta Gallekuko karga bakoitzagatik 11,5 marai.

Lekukoak Esteban Eztiola eskribaua, Joan Igartza eta Pedro Baltzola izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 8] agiria).

- 1536-III-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Kontzejua bildu zen. Bertan ziren, besteak beste, zestoar hauek: Esteban Artazubiaga alkatea, Migel Artazubiaga fiela, Joan Artiga, Pedro Martinez Baltzolakoa, Anton Arretxe, Joan Erretzabal, Kristobal Erretzabal, Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Lope Ernataritz, Joan Arrona, Joan Akoa eta Joan Martinez Akoakoa gaztea, Martin Esteban Makatzaga eta Joan Ezenarro.

Haien aurrera Esteban Eztiola eskribaua azaldu zen, eta Kontzejuak bere garaian Valladolida Fortun Santxez Iraetakoarekin eta Alonso Idiakaitzekin zi-

tuzten auziak bideratzera bidali zuela gogorarazi zien. Auzi haiek ia hiru urte lehenago amaitu ziren, eta Esteban Eztiolak han egindako 68 dukateko eta zenbait maraitako gastuak ez zizkioten ordaintzen, behin eta berriz eskatu arren.

Dena den, egun hartan Kontzejuak mendiak saldu zituen enkantean 100 dukatean (Beltran Arizmendik hartu zituen) eta dirua bazeukaten. Kontzejuak zioenez, ordea, lehentasun handiagoko ordainketak egin behar zituzten eta Esteban Eztiolari ahalik eta azkarren ordainduko zioten. Lekuko Debako Kristobal Olaskoaga, Joan Olazabal eta Domingo Legoiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 9] agiria).

- 1536-IV-18an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Lasako Maria Nikolas Zabala andreak 177 dukat eta 103 marai ordaindu zizkion Kontzejuko Migel Artazubiaga fielari. Lehenago Beltran Arizmendik enkantean Etumeta aldeko Artzegitxiki eta Atzerrekaxikiren arteko mendiak eta Gallekukoak erosi zizkion Kontzejuari, 1.260 karga ikatz ateratzeko. Karga ikatzeko 23 maraiko zen prezioa, eta Gallekuko karga bakoitzarena 11,5 maraiko.

Egun hartan, ordea, Maria Nikolasek, Beltrani mendiak hartu zizkiolako, ordainketa egin zuen. Ko-

1.6. irudia. Bidaniko Usarragazar. Batzar Berezien lekua.



puru hartatik, Domingo Ezenarrok eta Domingo Arano egin zuten baso-ikerketak eta balioespena deskontatu egin behar zen. Beraz, Kontzejuarentzat garbi 72 dukat eta 103 marai geratu ziren.

Kontratu-agirian lekuko Joan Igartza, Domingo Urbieta eta Domingo Aranguren izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 9] agiria).

- 1536-VII-16an, Zestoako udaletxean, Kontzejua bildu zen, besteak beste Esteban Artazubiaga alkatea eta Blas Artazubiaga eskribaua bertan izanik. Kontzejuak Domingo Artazubiaga fieleri ahalordea eman zion biharamunean Bidaniko Usarragan Probintziak deituta egingo ziren Batzar Bereziatan prokuradore izan zedin. Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Fernando Olazabal medikua, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Pedro Baltzola (ikus [XVI. m. (36-VII) 7] agiria).

- 1536-IX-29, Zestoako udaletxean Kontzejua bildu zen Blas Artazubiaga eskribaua bertan zela. Urtero ohi bezala, San Migel egunez Kontzejuko karguak berri egin zituzten. Lehenbizi Kontzejuko hautesleak izendatu zituzten: Martin Etxeberria, Domingo Amilibia, San Joan Etxegarai eta Martin Otxoa Ermukoa.

Domingo Amilibiak hauek aurkeztu zituen: San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua alkate izateko, eta Joan Martinez Amilibikoa fieli izateko; Martin Etxeberriak hurrenez hurren Martin Fernandez Edarritzagakoa eta Martin Arzallus izendatu zituen; San Joan Etxegarai Pedro Iribarrena eta Joan Fernandez Areitzagakoa; eta Martin Otxoa Ermukoak Lope Zelaia eta Martin Ibañez Zubiaurrekoa.

Martin Zubiaurre, Joan Erretzabal, Joan Bengoetxea eta Martin Lizaso izendatu zituzten zinegotzi izateko hautagai.

Zozketa eginda, hauek atera ziren: alkate San Joan Perez lizentziatua; fieli eta errejidore Joan Fernandez Arreizagakoa; zinegotzi Martin Zubiaurre (hiribildutik)

eta Joan Bengoetxea (Aizarnatik); basozain Lope Zelaia, Joan Erretzabal, Domingo Aranburu, Pedro Iribarrena eta Martin Arano.

Zestoako erroldako eskribau-postua hutsik gertatzen zenerako, eskribaua izendatzeko hautesle hauek izango ziren: alkatea, Joan Bengoetxea fieli (Aizarnatik izendatua), Domingo Aranburu, Joan Martinez Amilibikoa, Martin Ondalde eta Domingo Arrona. San Migel egunez hautesle bakoitzak bere hautagaia aurkeztuko zuen, eta gehienek aurkeztutako eskribaua hartuko zuten hutsunea betetzeko. Errege-erreginek Probintziari emandako pribilegioaz baliatzen ziren horrela.

Lekuko Bartolome Txiriboga, Julian Olazabal eta Joan Majado de Poza izan ziren. Jarraian Bartolome Txiribogak alkateari protesta azaldu zion Joan Fernandez Arreizagakoa fieli onibarririk ez zuelako, baina Fernando Olazabal medikuak bere ondasunez babestu zuen fieli berria. Lekuko Martin Zulaika, Joan Aldalur eta Martin Arano izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 11] agiria).

Kontuan hartu behar da urte batean alkatea Zestoako hiribildukoa edo ingurukoa eta hurrengoan Aizarnako partekoa izaten zela. Adibidez, hiribildutik Esteban Artazubiaga izan zen alkate urtebetez egun hartara arte, eta hurrengo urtean (San Migel eguna arte) Aizarnatik San Joan Perez lizentziatua izango zen.

- 1536-X-25ean, Zestoako udaletxean, Blas Artazubiaga eskribaua bertan izanik, Kontzejua bildu zen. Han ziren, besteak beste honako zestoar hauek: San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa alkate eta lizentziatua, Migel Artazubiaga fieliordea, Fernando Olazabal alkateordea, Julian Olazabal probestuordea, Esteban Eztiola eskribaua, Gregorio Elizalde eta Jakobo Gosalaga.

Kontzejuak auzia zuen Martin Zubiaurrerekin korrejidorearen aurrean, eta Kontzejuak ahalordea eman

zien korrejimenduko Jeronimo Atxagari, Joan Lopez Etxanizkoari, Joan Perez Arranibarkoari eta beste lau prokuradoreri, auzian ordezka zezaten.

Ahalordean lekuko hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa, Martin Arbestain eta Joan Garratza (ikus [XVI. m. (36-X) 17] agiria).

- 1536-XI-10ean, Zestoako udaletxean, Blas Artazubiaga eskribaua bertan zelarik Kontzejua bildu zen. Han ziren, besteak beste, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa alkatea, Joan Fernandez Arreizakoa fiel errejidorea, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Julian Olazabal probestuordea, Domingo Amilibia eta Joan Martinez Erretzabalgoa. Ahalordea eman zioten Joan Ibañez Amilibikoari Seguran egingo ziren Batzar Nagusietan hiribilduaren prokuradore izan zedin. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Domingo Amilibia eta Joan Garratza izan ziren (ikus [XVI. m. (36-XI) 4] agiria).

1.1.5. Joan Ezenaroren eta Grazia Gorosarriren testamentuak

- 1536-IV-3an, Aizarnan, Joan Ezenarro zurgin-maisuak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Hildakoan Aizarnako elizan lurperatuko zuten emaztearen hilobian. Ohiko hiletak egingo zizkieten. Aizarnako elizan 30na meza emango zituzten haren arimaren alde Joanes Ipintzak, Joanes Potzuetak eta erretoreak.

Joan Ezenarrok limosna hauek ere agindu zituen: gatibu kristauak askatzeko 2 erreal, Aizarnako elizari dukat bat, Santa Engraziari erreal bat eta Zestoako elizari beste erreal bat. Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari 79 txanpon zor zizkion, baina, 3 otar emanak zituelako, 2 erreal deskontatuko zizkieten.

Ondoren, kobratzeko zeuzkan eta zor zizkieten kopuruen zerrenda egin zuen: Maria Beltsodik dukat bat zor zion, Paskual Belsodiren oinordekoek 8 dukat, Etxeberriko oinordekoek 5 dukat zahar eta Nafarroako dukat bat, Maria Ruizek 2 erreal, Grazia Zabalak 15 erreal, Joan Erretzabalek 10 txanpon, Domenja



1.7. irudia. Segurako udaletxea. Lardizabal juaregiko armarrria.

Belsodik 24 txanpon, Grazia Paginok 14 txanpon, Zaurazko jaunak 3 dukat eta 7 erreal, Txomin Maiagak 45 sos, Maria Aizarnazabalek 5,5 txanpon, etab.

Ezenarroko etxean seniparteagatik 12 dukat jasotzea zegokion Joani, eta Joanen 4 seme-alabetako bakoitzak 4 dukat kobratuko zituen. Bere ondasunen herenaren eta bostenaren hobekuntza Bizente Ezenarro semeari eman zion, eta honek ordainduko zituen aitaren hiletak eta elizkizunak. Beste seme-alabek bina dukat kobratuko zuten (Ezenarro etxeko 4 dukatez gain).

Oheak eta arropak nola banatu ere zehaztu zuen Joan Ezenarrok. Bizente semea izango zen oinordeko unibertsala. Testamentu-betearazle hauek izango ziren: Fernando Olazabal medikua, Bizente Ezenarro, Joan Ezenarro eta Martin Ezenarro. Testamentuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Etxeberria, Sebastian Arano eta Joango Egaña (ikus [XVI. m. (36-IV) 3] agiria).

- 1536-IV-4an, Aizarnan, Grazia Gorosarrik (Ereño bizi zenak) Blas Artazubiaga eskribauaren bidez testamentua egin zuen. Hildakoan Aizarnako elizan lurperatuko zuten Ereñoeko etxearen hilobian. Ohiko hiletak egingo zizkieten. Gainera 30na meza emango zituzten haren arimaren alde Joan Otxoa Artazubiagakoa erretoreak, Joanes Ipintzak eta Joanes Potzuetak.

Limosna hauek ere agindu zituen: gatibu zeuden kristauak askatzeko erreal bat, Aizarnako elizari dukat bat, Santa Engraziari bi erreal, Arantzazuko Andre Mariari bi erreal, Zestoako elizari bi erreal eta Itziarkoari erreal bat.

Ondoren Grazia Gorosarrik bere zorren zerrenda egin zuen: Ana Altzolaratsi 10 edo 12 txanpon zor zizkion, Maria Joango Barrenolari 14 txanpon, Martin Zelaiari txanpon bat, Maria Arizmendiri 10 sos, etab.

Txomin, Joan eta Mariatxo Ereño seme-alabak zituen, eta Joan Ereño senarrak aukeratuko zuen ondasunen herenaren eta bostenaren hobekuntza hiruretan zeini eman. Mariatxo alabari bi ohe utzi zizkion, eta Maria Otxoa Gorosarrikoari dukat bat kapa egiteko. Joan Ereño senarra izango zen testamentu-betearazle. Lekuko hauek izan ziren: Pedro Akoa, Txomin Ereño eta Jose Igartza zestoarrak (ikus [XVI. m. (36-IV) 4] agiria).

1.1.6. Joan Fernandez Arreitzakoa, Elbira Indo eta Pedro Askatsuaren testamentuak

- 1536-VIII-24an, Zestoako errebalean, Joan Fernandez Arreitzakoa hauspogileak testamentua egin zuen Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Hildakoan Aizarnako elizan lurperatuko zuten, alaba zetzan Bengoetxeko hilobian. Limosna hauek eman zituen: gatibu zeuden kristauak askatzeko erreal bat; Aizarnako elizari dukat bat; Zestoako elizari urrezko florin bat; Zestoako ospitaleari dukat erdia; Guadalupeko Andre Mariaren elizari 2 dukat, erromes baten bidez; eta Santa Engraziako ermitari erreal bat.

Ondoren, Joan Fernandez Arreitzakoak bere zorren zerrenda egin zuen: Arrasateko Martin Orori 120

dukat; Joan Azpeitiari 51 dukat; Pedro Baltzolari 12 kintal burdina; Domenja Zuuberi 7 kintal burdina; Fernando Sorazabali 10 dukat; Joan Martinez Lilikoa apaizari 2 dukat; Maria Beltran Akeberrori dukat bat; Martin Enbili dukat bat eta 8 erreal; Joan Ondarrari 10 kintal koipe (libra 10 maraian); Bengooleako olagizonari 2 dukat; eta Joan Lopez Agirrekoari 12 dukat.

Jarraian Joan Fernandezek bere ondasunen eta kobratzeko zeukanaren zerrenda egin zuen: Portugaleten hauspoen oholak zor zizkieten; Martin Itziarren (edo Artzuriagaren) etxean 41 dukat balio zuten ganaduak zeuzkan; Joan Perez Etchezarretakoak 12 dukat zor zizkion; Martin Diaz Mirubikoak dukat bat zor zion; Urrixateko olagizonak 6 dukat; Joan Amilibiak eta bi lagunak dukat bat; Joan Arreitzak 1,5 dukat; Joango Olaberriak 9 erreal; Markinako mazolari bateg 2 dukat; Joan Bengoetxeak 2 dukat; Joan Atxagak 4 dukat; Muxika batxiler tolosarrak 10 dukat; etab.

Joan Fernandezek aginduz, emazteari 10 dukat, zilarrezko katilu handiena, oheak eta arropak emango zizkieten. Joan Bengoetxea izango zen oinordeko unibertsal eta testamentu-betearazle.

Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Joan Zuazketa (Errezilgo apaiza), eta Zestoako Domingo Lizarrats eta Joan Arrona (ikus [XVI. m. (36-VIII) 9] agiria).

- 1536-X-1ean, Zestoako Txiribogan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Elbira Indok testamentua egin zuen. Hiltzen zenean Aizarnako elizan lurperatuko zuten, gurasoak zeuden hilobian, eta ohiko hiletak eta elizkizunak egingo zizkieten.

Limosnak eman zituen: gatibu zeuden kristauak askatzeko erreal erdia; Aizarnako elizari 20 kana harizko ehun aldareetarako; Santa Engraziari erreal bat; Zestoako elizari erreal erdia; Urdanetako elizari txanpon bat; eta Aizarnazabalgo elizari beste txanpon bat.

Aizarnako elizan 30na meza emango zituzten haren arimaren alde Joan Otxoa Artazubiagakoa erretoreak,

1.8. irudia.
Txiribogatziki.



Domingo Urbietak eta Intzinako abadeak (Joanes Potzuetak). Meza haiek Joan Indo anaia apaiz zenaren oinordekoek zor zizkioten 4 dukatetatik ordainduko ziren.

Elbira Indoren ondasunetatik zenbait ordainketa egingo zuten: Maria Beltran Akeberrori txanpon bat emango zioten; Martin Indo ilobari 5 dukat; Martin Indoren emazte Katalina Urbietari 10 kana harizko ehun; Maiagako Katalina Indo ilobari 10 kana harizko ehun; eta Maria Anton Indo ilobari 8 kana harizko ehun.

Maria Anton Indo ilobari 3 dukat zor zizkion, Joan Indo anaia apaiz zenaren hileta eta elizkizunetarako maileguz eman zizkiolako. Elizkizun haietarako 9 dukat eman zizkion Migel Sorazabalek, eta hiru dukat jaso zituen Fortun Santxez Iraetakoa artzapezak. Grazia Egañak 2 dukat eman zizkion eta Domenja Mirubiak beste 2, eta Sarasolako 35 libra urdai ere jaso zituen. Maria Anton Indok beste 3 dukat zor zizkion.

Eztainuzko plater bana utzi zien Maria Anton Indori, Katalina Indori eta Martin Indo ilobei. Katalina Txiribogak 2 dukat zor zizkion, eta Martin Indok ko-bratuko zituen. Maria Ganbara alabari kutxa bat, bi zoronga, soinekoa eta kapoteak utzi zizkion. Anaia Joan Indo apaiz zenaren soinekoa Domingo Maiagari utzi zion.

Elbira Indok oinordeko eta testamentu-betearazle Martin Indo iloba izaendatu zuen. Lekuko hauek izan ziren: Migel Agirre (Aizarnazabalgo erretorea), Zumaiako Joan Etxezarreta, Zestoako Joan Atxaga eta Leizaurko Joan Arrate (ikus [XVI. m. (36-X) 1] agiria).

- 1536-XI-20an, Zestoako Urbietan, Elbira Indo ohean gaixo zegoen. Blas Artazubiaga eskribauak agiria egin zion, Indo etxean seniparteagatik izan zitzakeen eskubide guztiak Martin Indo ilobari emateko, seniparte oso jaso baitzuen. Ondoren, beste agiri bat egin zuen. Lehenago egindako testamentuan Martin Indori sagastia emanegindako dohaintza berretsi eta onetsi egin zuen. Maria Aizarnazabal alabari testamentuan agindutakoarekin konforme gera zedila agindu zion. Bestela gaitzetsi egingo zuen obeditzaile ez zelako.

Aipatutako bi agirietan lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Ausoroetxea, Joaniko Indo eta Martin Argiain (ikus [XVI. m. (36-X) 13] agiria).

- 1536-X-25ean, Aizarnako Askatsua baserrian, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Pedro Askatsuak testamentua egin zuen. Aizarnako elizan lurperatuko zuten, Askatsua etxearen hilobian. Hiletak, bederatzizurrena, urteurrena eta bigarren urteurrena egingo zizkioten.

Testamentu-betearazle hauek izendatu zituen: Maria Joango Askatsua emaztea, Martin Etxeberria suhia (Maria Askatsua alabaren senarra), Antonio Lizarrarats, Joan Majado de Poza eta Joan Igartza.

Limosna hauek eman zituen: Aizarnako elizari ardi bat; Santa Engraziako ermitari erreal bat; eta gatibu zeuden kristauak askatzeko erreal bat. 30na meza emango zituzten haren arimaren eta Askatsuko hildakoen arimen alde Joanes Ipintzak, Antonio Lizarrarats eta Joanes Potzuetak. Emazteak ordainduko zituen meza haiek.

Testamentu-betearazleek ongi zainduko zuten Madalena Askatsua alaba gaztea. Etxeko idi pare onena Martin Etxeberria suhiak eta Maria Joango emazteak hartuko zuten baserriko lanetarako, eta beste idi pare Maria Joangorentzat bakarrik izango zen. Etxerako geratuko ziren 6 behi, baina txekor bat Maria Joangok beretzat hartuko zuen. Ahuntz eta ardi guztiak ere Maria Joangorentzat izango ziren, eta katilu bat ere bai.

Ondoren Pedro Askatsuak bere zorren zerrenda egin zuen: Joan Indo apaiz zenaren testamentu-betearazleei 3 dukat zor zizkien; Maria Nikolas Zabalari, Lasaoko andreari, 9 dukat; Joan Igartzari 15

dukat; eta Aranoko San Martin elizari bi meza. Aizarnako kofradiakoek, berriz, 100 marai zor zizkionten Pedrori, eman zien zekor batengatik.

Askatsua etxea dohaintzan eman zieten lehen Pedrok eta Maria Joangok beren alaba Maria Askatsuari eta Martin Etxeberria senarrari, hauek ezkondu zirenean, eta egin beharreko hobekuntzak egin zizkionten. Beste alaba Madalena Askatsuari 30 dukat agindu zizkion dote gisa, baina Maria Joango emazteak dotea hobetu nahi bazion, horretarako askatasuna izango zuen.

Martin Etxeberri suhiak 70 dukateko dotea ekarri behar zuen Askatsuara, baina ordura arte 13 dukat baino ez zituen ordaindu. Gainerakoa Maria Joangok kobratuko zuen.

Pedro Askatsuak bere arreba Maria Migelez Gorosarrikoaren senipartegatik, dohaintza egin zion Joan Gorosarri ilobari, baina Pedrok dohaintza deuseztatzea eta eskubideak Maria Joango emazteari ematea agindu zuen.

Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Joanes Potzuetak, Antonio Lizarrarats eta San Joan Etxegarai (ikus [XVI. m. (36-X) 16] agiria).



1.9. irudia. Aizarnako Askatsua.

1.1.7. Joan Arbestainen eta Maria Ortiz Ondaldekoren arteko ezkontza

- 1536-VI-18an, Zestoako Ondalden, Zarauzko Beltran Mendia eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senarra Aiako Joan Arbestain zen, Joan Domingez Arbestaingoa zenaren eta Maria Arbestainen semea. Emaztea, berriz, Zestoako Maria Ortiz Ondaldekoka zen, Martin Ausoroetxea-Ondalderen eta Maria Ortiz Ondaldekoren alaba (izen-deitura berekoak ziren ama-alabak).

Joan Arbestainek ezkontzara ondasun hauek ekarri zituen: Aiako Arbestainbekoa baserria, bere soro, zuhaitz eta gainerako lur eta ondasun guztiekin. Fidatzaile gisa hauek aurkeztu zituen: Aiako Martin Agote, eta Zarauzko San Joan Sorola eta Martin Arbestain. Joan Arbestainek konpromisoa hartu zuen bere fidatzaileak obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko.

Bestalde, Martin Ausoroetxea-Ondaldek eta emazte Maria Ortiz Ondaldekoka amak, beren alabaren dote gisa, hauek agindu zituzten: 72 dukat, 3 ohe oso, behia bere txahalarekin, arkumeak erosteko dobloi bat (2 dukat), jantziak, soineko bat eta oihal fineko kapa bat. Dotea epeka ordainduko zuten: hurrengo San Joan egunean 12 dukat, behia bere txahalarekin eta dobloia; handik urtebetera 20 dukat eta 3 oheak; eta handik aurrera urtero beste 20 dukat. Fidatzaile hauek aurkeztu zituzten: Pedro Ausoroetxea, Joan Ondalde eta Joan Pagino zestoarrak. Martin eta Maria Ortiz senar-emazteek konpromisoa hartu zuten fidatzaileak obligazio hartatik onik ateratzeko.

Ezkontza legezko seme-alabarik gabe hausten bazen edo seme-alabak testamenturik egin gabe hiltzen baziren, ekarritako ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen. Ezkontza-kontratuan lekuko zarauzta hauek izan ziren: Andres Elizamendi eta Hernando Arbestain apaizak, eta eta Joan Migel Olaso (ikus [XVI. m. (36-VI) 6] agiria).

1.1.8. Zubiaurretarren eta artazubiatarren kontratuak eta agiriak

- 1536-I-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Zestoako Martin Zubiaurre, eta Nafarroako Oskotz herriko Martin Oskotz, Pedro Oskotz semea eta Joanes Igoa. Azken hirurek zestoarrari Izarrizko mendietan 320 karga ikatz egingo zizkieten: 200 karga hurrengo Pazko garizumakoa egunerako, eta gainerakoa hurrengo San Joan egunerako. Karga ikatzak 3,5 txanpon balioko zuen. Martin Zubiaurrek 4 dukat aurrerratu zizkien.

Pedro Oskotzek, 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen kontratuari aurka ez ziola egingo. Lekukoak hauek izan ziren: Azpeitiko Joan Elorriaga (honek nafarrak ezagutzen zituen), eta Zestoako Pedro Akoa eta Joan Artiga? (ikus [XVI. m. (36-I) 7] agiria).

- 1536-II-4an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik, Sebastian Artazubiaga bere Pedro Egaña eta Esteban Edarritzaga suhiekin, eta, bestetik, Joan Otaegi (edo Joan "Azti"). Elkarren artean egun hartara arte izandako tratuen kontuak garbitu zituzten. Ondorioz, Sebastianek eta bere bi suhiek ordainagiria eman zioten Joan Otaegiri.

Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Olazabal eta Domingo Aldalur (ikus [XVI. m. (36-II) 3] agiria).

- 1536-II-26an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Maria Joango Ganbara. Maria Joangok Martini 26 dukat maileguz hartu zizkion, eta hurrengo Pazko garizumakoan ordainduko zizkion. Lekuko Pedro Artzubiaga, Joan Ibañeta eta Joan Garratza izan ziren (ikus [XVI. m. (36-II) 10] agiria).

- 1536-III-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Getariako Joan Isasti eta Esteban Artazubiaga aitagarreba elkartu ziren. Estebanek, alaba Maria Ruiz Artazubiagakoa Joan Isastirekin ezkondu zenean, 100 dukateko dotea agindu zion. Ordurako 50

dukat ordainduta zeuzkan (ikus [XVI. m. (35-XII) 1] agiria). Egun hartan, berriz, azken 50 dukatak ordaindu zizkion, eta Joanez ordainagiria eman zion.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Kristobal Erretzabal, Joan Urbano? eta Joan Olazabal (ikus [XVI. m. (36-III) 10] agiria).

- 1536-IV-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Esteban Artazubiaga emazte Katalina Ipintzarekin eta Domingo Lizarrarats azaldu ziren. Estebanen seme Domingo Artazubiaga eta Domingo Lizarraratsen alaba Maria Lizarrarats ezkondu zirenean, Domingok alabarentzat 200 kintal burdinako dotea bi epetan ordaintzea agindu zuen (ikus [XVI. m. (35-V) 14] agiria). Domingo Lizarraratssek Estebani eta emazteari lehen epeari zegozkien 100 kintal burdinak ordaindu zizkien, eta hauek ordainagiria eman zioten.

Lekuko zestoar hauek izan ziren. Joanes Garratza, Pedro Artazubiaga eta Joan Artazubiaga (ikus [XVI. m. (36-IV) 10] agiria).

- 1536-V-26an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Martinez Estiabarkoa agertu zen, Elorrioko Joan Ibañez Osakoa merkatariaren izenean. Zestoako Sebastian Artazubiaga ere bertan zen. Joan Martinezek, hain zuzen, Pedro Ibañez Estiabarkoa eskribauak sinatutako ahalordea erakutsi zuen.

Lehenago, Joan Lopez Zuloetakoa eskribauaren aurrean Joan Ibañez Osakoari obligazio-agiria eman zioten Zestoako hauek: Sebastian Artazubiagak, Martin Ondaldek, Beltran Arizmendik eta Domingo Arangurenak. Lau zestoarrek 500 kintal burdina pletinatan ordaindu behar zioten Elorrioko merkatariari.

Egun hartan, ordea, ados jarri ziren Sebastian Artazubiaga obligazio hartatik irten eta berak bakarrik, bereizita, 150 kintal burdina pletinatan (pletina 2 “ertz” pisukoa izanik) ordaintzeko. Gainerakoa beste hiru zestoarren kontu geratuko zen. Sebastian Artazubiagak 150 kintal haiek ordaintzeko, fidatzailatzat

bere hiru suhiak aurkeztu zituen: Joan Bengoetxea, Pedro Egaña eta Esteban Edarritzaga.

150 kintalak epeka ordainduko zituen Sebastianek Beduako errenterian: 40 kintal hurrengo Eguberri egunean, handik urtebetetera 40 kintal, handik beste urtebetetera 40 kintal eta handik beste urtebetetera azken 30 kintalak.

Joan Martinez Estiabarkoak, 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen agiri haren aurka ez zela joango. Lekukoak Joanes Potzueta, San Joan Etxegarai eta Martin Etxeberria izan ziren.

Jarraian, eskribaua eta lekuko berak aurrean zirela, Sebastian Artazubiagak konpromisoa hartu zuen bere hiru suhiak obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko (ikus [XVI. m. (36-V) 15] agiria).

- 1536-VIII-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ibañez Zubiaurrekoak Debako Joan Arantzari eta Martin Artzuriagari ordainagiria eman zien. Martin Ibañezek egindako zenbait garraioetik, bi debarrek 49? dukat, 8 txanpon eta 4 sos zor zizkioten. Kopuru hura eman ziotelako, zestoarrak ordainagiria eman zien. Martin Artzuriagak Martin Ibañez Zubiaurrekoari egin zizkion beste zorrak indarrean jarraituko zuten.

Lekuko Joan Igartza, Asentzio Igartza eta Migel Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 5] agiria).

- 1536-VIII-17an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Elgoibarko Martin Agirre eta Zestoako Martin Ibañez Zubiaurrekoa azaldu ziren. Elgoibartarrak zestoarrari 7 dukat balio zuen idia zorretan hartu zion, eta haren balioa hurrengo Pazko garizumakoan ordainduko zion. Joan Arrona eta Migel Sorazabal zestoarrak izan ziren lekukoetako bi (ikus [XVI. m. (36-VIII) 7] agiria).

- 1536-VIII-27an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Otaegi eta Joan Otxoa Artazubia-

1.10. irudia.
Bengoetxeko errota.



gakoa erretorea elkartu ziren. Lehenbizi Joan Otaegik Joan Otxoa erretoreari, Aizarnako Etxeberrin zeuzkan ardi-aziendako 26 buru saldu zizkion 7 dukatean. Joan Otxoak orduantxe ordaindu zituen ardiak.

Ondoren, Joan Otxoak ardi haiek Joan Otaegiri utzi zizkion, behar bezala eta erdi bana haz zitzen. Lekukoak Joango Olaberria, Pedro Ausoroetxea eta Martin Fernandez Edarritzagakoa izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VIII) 11] agiria).

- 1536-IX-17an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Errezilgo Joan Martinez Arzalluskoa eta Zestoako Sebastian Artazubiaga elkartu ziren. Joan Martinezek Sebastiani lehenago agindutako 200 karga ikatz eman zizkion, eta egun hartara arte izandako tratuen kontuak ere garbitu zituzten. Sebastianek 1,5 dukat, erreal bat eta txanpon bat ordainduta zorrak kiatzurik geratu ziren.

Lekuko Zestoako Martin Zulaika, Martin Legarda eta Martin Gorosarri izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 6] agiria).

- 1536-X-10ean, Zestoako Beduan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Sebastian Artazubiaga elkartu zen. Sebastianek Bizkaiko Joan Abad Muskizkoari

eta honen lagunei ordainagiria eman zien, agindutako 1.000 kintal burdin mea eman egin zizkiotelako. Joan de la Pedrizaren bidez 325 kintal jaso zituen, Jorje Motioren? eskutik 280 kintal eta Pedro Gil Pobeñakoaren eskutik 395 kintal. Horiez gain Joan Abad Muskizkoak Pedro Gil Pobeñakoaren bidez bidalita beste kopuru batzuk ere jaso zituen Sebastianek.

Ordainagirian lekukoetako bi Joan Belez Beduakoa eta Joan Bengoetxea zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 5] agiria).

- 1536-X-14an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Zestoako Sebastian Artazubiagak eta Joan Bengoetxeak obligazio-agiria eman zioten Zumaiaiko Martin Diaz Mirubikoari. Martinek bi zestoarrei 24 kintal burdina pletinaren balioa (urrezko 28 dukat eta zilarrezko 4 erreal) egun hartan eman zien, eta hauek zorra hurrengo Eguberrietan ordainduko zioten. Lekuko Migel Perez Indanetakoa, Joan Indo eta Domingo Atristain zumaiarrak izan ziren.

Jarraian, Sebastian Artazubiagak agiria egin zuen Joan Bengoetxea obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko, berez zorra Sebastianena baino ez zelako (ikus [XVI. m. (36-X) 8] agiria).

1.1.9. Joan Mirubiaren zorrak eta agiriak

Aizarnazabalgo Joan Mirubiak hainbat zor egin zuen, eta hartzekodunek bere baserria, burdinola, errota, mendiak eta gainerako ondasunak exekutatzeko bidean ziren (ikus *IV ZESTOA XVI. MENDEAN (1531-1535)* liburuko [XVI. m. (35-IV) 1] agiria). 1536. urtean jarraitu egin zuten Joan Mirubiak hartzekodunekin eta hartzekodunek elkarrekin Gipuzkoako korrejimenduan zituzten auziek.

- 1536-II-12an, Bizkaiko Ermuan, Aizarnazabalgo Joan Mirubiak obligazio-agiria eman zion hango Lope Bustintza merkatariari. Guztira 110 kintal burdina emango zizkion Oikiako errenterian edo Beduakoan, hurrengo maiatzaren amaierarako. 85 kintal burdina pletinatan eta 25 kintal barratan (barra 2 “ertz” pisukoa izanik) emango zizkion.

Burdina haien balioa (131 dukat) egun hartan jaso zuen dirutan Joan Mirubiak. Frantzisko Espilla eskribauak egindako agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Belez Arbestaingoa, eta Ermuko Joan Perez Gabirikoa eta Joan “Zuri” Agirre.

- 1536-III-2an, Getarian, Martin Perez Mantelolakoa alkatearen eta Domingo Otxoa Portukoa eskribauaren aurrean Santxa Perez Ganboakoa azaldu zen, bere Ana Aldamar, Maria Perez Aldamarkoa eta Isabel Aldamar alaba adingabeekin. Santxaren senar Pedro Ibañez Aldamarkoa kapitain getariarra 20 bat egun lehenago hil zen Alacanten, eta ondasun asko utzi zuen onibarretan, itsasontzitan, dirutan, burdinatan eta abarretan.

Legezko hiru alabak adingabeak ziren: 12-25 urte bitartekoak ziren Ana eta Maria Perez, eta 10-12 urte bitartekoa Isabel. Beraz, lehen biek zaintzailea behar zuten, eta hirugarrenak tutorea, haiei zegozkien ondasunak eta arazoak kudeatzeko. Alkateak galdetuta hiru alabek esan zuten, ama Santxa Perez nahi zuten zaintzaile eta tutoretzat. Amak kargua onartu eta alkatearen aurrean zin egin zuen bere lana zintzo beteko zuela. Alkateak, bere aginpideaz baliatuta, zain-

tzaile eta tutore izendatu zuen ama. Santxa Perezek fidatzaile hauek aurkeztu zituen: Bizkaiko konderriko Joan Arteaga-Ganboa (Arteagako jauna) eta Joan Ortiz Ganboakoa (Zarautz etxeko jauna).

Santxa Perezek konpromisoa hartu zuen bere bi fidatzaileak obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko. Agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Ruiz Gaintzakoa (Getariako bikarioa), Tomas Asu eta Domingo Elkano apaizak.

- 1536-VII-18an, Tolosan, Alonso del Barco doktore eta korrejidorearen aurrean Joan Martinez Untzetakoa prokuradoreak, Santxa Perez Ganboakoaren izenean, aurreko urtean Joan Mirubiak Pedro Ibañez Aldamarkoa kapitainari 500 kintal burdina mehe ordaintzeko emandako obligazio-agiria aurkeztu zion. Joan Mirubiari ondasunak exekuta ziezazkiola eskatu zion korrejidoreari, zorra ordaindu ez zuelako.

Biharamunean, korrejidorearen aginduz, Joan Martinez Untzetakoak Andres Gartzia Bereziartukoa merioordeari eskea egin zion Joan Mirubiaren ondasunak exekuta zitzaizkion. Lekuko hauek izan ziren: Arrasateko Joan Lopez Etxanizkoa, Villabonako Joan Paris eta Azpeitiko Andres Olaberrieta.

- 1536-VII-18an hasita, Tolosan, Alonso Caballero merio nagusiaren agindupean Joan Mirubiari ondasunak exekutatzeko pregoiak eta enkanteak egin zituen. Azken enkantean Santxa Perezen aldeak 100 dukat eskaini zituen exekutaturiko ondasunengatik.

- 1536-VII-31n, Tolosan, Joan Martinez Untzetakoa prokuradoreak Santxa Perezen izenean eskea egin zion korrejidoreari, Joan Mirubia preso zegoelako. Bere ondasunengatik fidatzaileak aurkeztu ez zuelako kartzelan zegoen. Santxa Perezek zioenez, Joan Mirubiak 500 kintal burdina mehe ordaintzeko bermea eskaini omen zion, eta korrejidoreari Joan Mirubia aske utz zezala eskatu zion, baina auziak aurrera jarrai zezala ere bai. Hain zuzen Tolosan, abuztuaren 4an, bertako Anton Anoeta fidatzailea azaldu zen. 7 dukat eta 10 kintal burdina 8 egun barru ordainduko zituen.

- 1536-VIII-3an, Getarian, Beltran Mendia eskribauaren bidez Lope Iurre zarautzarrak agiria egin zuen Santxa Perez Ganboakoa getariarrantzat. Joan Mirubiak eta Aiako Martin Izeta fidatzaileak 100 kintal burdina mehea zor zizkioten Lope Irureri, baina Santxa Perezek zor hura Loperi hurrengo Eguberrietarako ordainduko zion. Beraz, 100 kintal haiek kobratzeko eskubidea Santxak bere gain hartu zuen. Lekuko hauek izan ziren: Joan Untsain (Zarauzko bikarioa), Joan Lopez Zarauzkoa eta Domingo Arbestain.

- 1536-VIII-22an, Tolosan, Arteaga batxiler eta korrejidoreordeak agindua eman zuen Mirubiko baserri, burdinola, errota, mendi, ganadu eta bertako ondasun guztiak Santxa Perezi eta honen alabei emateko.

- 1536-VIII-27an, aginduaren berri Maria Lopez Laurgaingoari (Joan Mirubiaren emazteari) eman zion Domingo Otxoa Portukoa eskribau getariarrak, Getariako Domingo Zabala eta Migel Iriarteren aurrean.

Geroago Azpeitian, Joan Martinez Untzetakoa prokuradorea azaldu zen korrejidorearen aurrean. Getariako Pedro Ibañez Aldamarkoa kapitain zenaren Santxa Perez Ganboakoa alargunaren eta hiru alaba adingabeen izenean zebilen. Prokuradoreak zioenez, Martin Zubiaurrek Mirubiko ondasunez eskubideak zituela ez zuen frogatu. Joan Mirubiak Pedro Ibañez kapitain zenari 500 kintal burdina mehea ordaintzeko obligazio-agiria eman zion. Ondorioz, ondasunak exekutatu eta Migel Plazakoak emanda Martin Zubiaurrek zeuzkan Mirubiko ondasunen eskubideak Santxaren eta alaben eskuetara etorri ziren.

Martin Zubiaurreri Joan Mirubiak egindako zorra gezurrezkoa omen zen, maltzurkeriaz egina, eta enkantea isilpean egin omen zuten. Domingo Lizarratsek lehenago 12 dukat eta 15 kintal burdinako zorragatik exekutatu omen zituen Mirubiko ondasunak.

Joan Mirubiaren emazte Maria Lopez Laurgaingoak dotea (250 dukat) 6.000 karga ikatz emanda ordaindu zutela aitortuz, 1528-IX-9an ordainagiria



1.11. irudia. Getariako Aldamar etxea.

eman zuen Joan Mirubiak, baina ikatz haiek ez omen zituen jaso.

Bestalde, 1535-IX-1ean Joan Mirubiak Lope Iurre zarautzarrari 100 kintal burdina meheko zorra egin zion. Bitartean Martin Zubiaurre Mirubiko mendietatik itsasontziak eta etxeak eraikitzeke gordeta zeuden zurak isilpean eramaten ari omen zen. Beraz, eskea egin zion korrejidoreari Mirubiko ondasun guztiak Santxa Perezentzat eta alaba adingabeentzat gera zitezen.

- 1536-IX-4an, Aizarnazabalgo Mirubian, Joan Saiz Zumaiakoa eskribauaren eta Frantzisko Zarate merioordearen aurrean, Katalina Mirubia azaldu zen. Merioordeak, korrejidoreak emandako aginduaren bidez, Katalina burdinolara eta errotara sartu zuen, haien jabe zela adierazteko. Aizarnako Martin Egaña eta Maria Mirubia izan ziren lekuko.



1.12. irudia. Aiako Laurgaingo San Migel eliza.

- 1536-IX-27an, Azpeitian, Getariako Domingo Otxoa Portukoa eskribauaren bidez, Joan Martinez Untzetakoa prokuradoreak bere ordezkari Joan Errekondo aiarra izendatu zuen, Mirubiko ondasunak Santxa Perezen izenean har zitzen. Hiru egun geroago bete zuen eginkizun hori Mirubian, Julian Olazabal merio nagusiaren ordezkarekin. Baserriaz, burdinolaz, errotaz, mendiez, sagastiez, soroez, ganaduez eta gainerako ondasunetaz jabetu zen.

Mirubiko baserrian maizter Joana utzi zuen, Pedro Ibañez Aldamarkoaren neskame izana. Egunduan berean Joan Errekondo Etxubi (edo Ezuria) baserriaren erdia ere jabetu zen Santxa Perezen izenean. Paskual Iriarte eta Migel Iriarte getariarrak izan ziren lekuko.

Geroago Joan Martinez Untzetakoa kexu zen korrejidorearen aurrean; izan ere, Zestoako Martin Zu-

biaurrek bere eta Domingo Larretxeren izenean Mirubiko basoak botatzen ari zen (ikus [XVI. m. (36-II) 4] agiria).

- 1536-IX-4an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Zumaiako Joan Mirubia, eta, bestetik, Ermuko Lope Bustintza. Lopek Joani burdina ateratzeko burdin mea eman zion, eta zumaiarrak ermuarrari sei kintal burdina peltinatan emango zizkion ordainetan hurrengo Eguberri egunean, Beduako errenterian.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Indo, Martin Otxoa Ermukoa eta Joan Belez Beduakoa (ikus [XVI. m. (36-IX) 4] agiria).

1.1.10. Sorazabaldarren eta lizarrarastarren tratu eta agiriak

- 1536-III-26an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Gregorio Elizalde, emazte Maria Etorra eta Domingo Lizarrarats aurkeztu ziren. Senar-emazteek Domingori 14 dukat zor zizkioten, eta urte eta erdiko epean ordaintzeko konpromisoa hartu zuten. Maria Etorrak zin egin zuen obligazio-agiriak zioenari aurka ez ziola egingo. Lekuko Pedro Baltzola, Martin Lizarrarats eta Martin Sastarrain izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 14] agiria).

- 1536-III-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Joan Oliden eta Iraetako Fernando Sorazabal olagizona azaldu ziren. Joan Olidenek Fernandori 800 kintal burdin mea garraiatuko zizkion Beduako portutik Iraetako burdinolara: 500 kintal hurrengo San Migel egunerako eta beste 300 Eguberri egunerako. Kintala garraiatzeak txanpon erdia balioko zuen, hau da, guztira 8 dukat.

Fernando Sorazabalek Joani egun hartan zaldi zamaria eman zion, 8 dukat balio zuena. Beraz, Joan Olidenek bere lanaren balio osoa kobratu zuen. Lekuko hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Martin Ezenarro-Ibia eta Joan Artiga (ikus [XVI. m. (36-III) 15] agiria).

1.13. irudia.
Ibañarrietako
Etxeaundia.



- 1536-V-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Eibarko Martin Martinez Malleakoa eta Debako Fernando Sorazabal olagizona azaldu ziren. Martinek eta Fernandok egun hartara arteko kontuak garbitu zituzten, eta eibartarrak ordainagiria eman zion. Hala ere, Fernandok 200 dukat ordaintzeko obligazioak indarrean jarraitzen zuen. Lekukoe-tako bi Martin Indo eta Esteban Eztiola zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 6] agiria).

- 1536-VI-3an, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Indok obligazio-agiria eman zion Fernando Sorazabali (Iraetako olagizonari). Fernandok Martini 20 kintal burdina pletinaren balioa dirutan eman zion, eta Martinek hurrengo Eguberri egunean Beduan burdinak utzita ordainduko zion zorra. Lekuko debar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Martin Azketa eta Martin Oliden (ikus [XVI. m. (36-VI) 2] agiria).

- 1536-VII-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: batetik Domingo Lizarrarats, eta, bestetik, Irureko Ibañarrietako bentan bizi zen Beltran Mantzizidor debarra. Beltranek Beduako portutik Lasako burdinolaraino Domingo Lizarraratsentzat 250 kintal burdin mea garraiatuko zituen hurrengo San Migel egunerako. Domingok 5 dukat ordaindu zizkion egun hartan Beltrani, bere lana

egin zezan. Lekukoak Zestoako Pedro Akoa, Martin Otxoa Ermukoa eta Joango Amilibia izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VII) 1] agiria).

- 1536-VII-16n, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Zestoako Joan Sorazabalek (Sorazabal baserrian bizi zenak), obligazio-agiria eman zion Zumaiako Martin Diaz Mirubikoari. Joanek Martini urtebeteko epean Zestoako Lapazpe izeneko mendietan ikatza egingo zion. Karga ikatzak 3,5 txanpon balioko zuen, eta Martinek lan guztiagatik 17 dukat eta 7 errealdaindu zizkion. Ikatz gehiago ateratzen bazen, aldea Martinek ordainduko zion, eta gutxiago ateratzen bazen, aldea Joanek itzuliko zion Martini.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Fernandez Dorrekkoa, Joan Saez Zumaiakoa eskribaua, eta Joan Gartzia Villafrancakoa (ikus [XVI. m. (36-VII) 8] agiria).

- 1536-VII-31n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Fernando Sorazabalek (Iraetako olagizonak) eta Joan Olidenek elkarren artean izandako tratuen kontuak garbitu zituzten; bai Joan Olidenek egindako 10 kintal burdinako zorraz, eta bai Joanek Fernandorentzat egindako ikatzez. Elkarri ordainagiria eman zioten, lekuko zestoar hauek izanik:

Pedro Akoa, Joan Artiga eta Asentzio Amilibia (ikus [XVI. m. (36-VII) 12] agiria).

- 1536-IX-24an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauarekin Pedro Akoa eta Iraetako Fernando Sorazabal olagizona elkartu ziren. Pedrok Joani 30 kintal burdina pletinaren balioa dirutan maileguz eman zion, eta Joanek burdinak Beduan utziko zizkion hurrengo Pazko garizumakoan. Lekukoetako bi Joan Fernandez Arreitzakoa eta Joan Artiga zetoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 7] agiria).

- 1536-IX-29an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Azpeitiko Joan Orbegozo, Joan Orbegozo semea eta Martin Orbegozo anaia, eta, bestetik, Zestoako Domingo Lizarrarats. Azpeitiarrek zetoarrari upeletarako burdinazko 1.050 uztai emango zizkioten. Uztaiaren burdinaren ebakidurak izango zituen neurriak agirian bertan markatu zituzten. Uztaiaren herena 12 arra bete luzekoa izango zen, beste herena 11 arra bete luzekoa, eta beste herena 10 arra bete luzekoa.

Uztai guztiak hurrengo Eguberri egunerako Beduako erreterian emango zizkioten Domingori. Zetoarrak 51 dukat aurrez ordaindu zien, eta gainerakoa material guztia Beduan emandakoan ordainduko zien. Domingok uztai bat gorde zuen. Lekuko Pedro Baltzola, Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Pedro Akoa izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 10] agiria).

1.1.11. San Joan Perez Idiakaitz, Ana Arretxe eta Domingo Arronaren agiriak

- 1536-I-20an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Martin Arano eta honen fidatzaile San Joan Egaña, eta, bestetik, Domingo Arrona gaztea. Domingok beste biei bi kintal burdina pletinaren balioa maileguz eman zien, eta hauek zorra burdinak Beduako erreterian Pazko garizumakoan emanda ordainduko zioten.

Martin Aranok zin egin zuen San Joan Egaña obligazio hartatik onik aterako zuela. Lekuko Joanes Po-

tzueta, Domingo Aranguren eta Martin Amilibia zetoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-I) 10] agiria).

- 1536-II-20an, Aizarnan, Altzolarats jauregiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Joan Gartzia Lasakoa elkartu ziren. Hil haren 8an San Joan Perez eta Joan Gartzia Urdanetako lurren eta Motrollamendiko Arbe baserriko lurren arteko mugak aztertu zituzten.

Horretan parte hartu zutenak honako hauek izan ziren: Martin Berridi, Joan Martin Indo, Martin Indo, Migel Iraramendi, Migel Azpiazu, Martin Argiain, Joan Azpiazu gaztea eta Joan Larrar. Harrizko bederatzi mugarri ikuskatu eta beren zehaztasunak idatzi zituzten. San Joan Perez eta Joan Gartzia ados geratu ziren finkaturiko mugekin.

Joan Gartziak, 25 urte bete gabea zelako, zin egin zuen agiri hark zioenari ez ziola aurka egingo. Blas Artazubiaga eskribauak idatzitako agirian lekuko zetoar hauek izan ziren: Pedro Iribarrena, Joan Arrona eta Joanes Ibañeta (ikus [XVI. m. (36-II) 5] agiria).

- 1536-II-25ean, Zestoako Altzolarats jauregian, Blas Artazubiagaren aurrean zetoar hauek azaldu ziren: Joan Arregi-Zabala eta Domingo Arrona merkataria. Joanek Domingori 6 kintal burdina pletinaren balioa dirutan maileguz hartu zion, eta zorra hurrengo abuztuaren lehen egunean ordainduko zion, burdinak Beduako erreterian utzita.

Lekuko Sebastian Oleden, Pedro Egaña eta Joan Isurola zetoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-II) 9] agiria).

- 1536-III-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Martinez Amilibia (Zarauzko erroldako eskribaua) eta Ana Arretxe agertu ziren. Lehenbizi Joan Martinezek zorra Domingo Arronari, Ana Arretxeren senar zenari, egin zion, eta gero Ana Arretxe berari. Zorra guztira 58 dukat eta 7 txanponekoa zen, eta Joan Martinezek urtebete barru ordainduko zion. Lekuko zetoar hauek

1.14. irudia. Altzolarats jauregiaren aurriak.



izan ziren: Joango Amilibia, Gabriel Artzubiaga, Bartolome Ibañeta eta Joan Legarda (ikus [XVI. m. (36-III) 7] agiria).

- 1536-V-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua eta Joan Arrona elkartu ziren. Lehenago lizentziatuaren amaginarreba Juliana Gebarak 3 dukateko zorra egin zion Joan Arronari. San Joan Perezek, ordea, zorra ordaindu egin zion, eta Joan Arronak eskubide guztiak eman zizkion zorra Juliana Gebarari kobra ziezaion. Lekukoak Pedro Akoa, Esteban Eztiola eta Joan Martinez Lilikoa apaiza izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 5] agiria).

- 1536-IX-30ean, Zestoan, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa alkatearen eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Martin Argiain (Pagio baserriko maizterra), eta, bestetik, Maria Perez Baltzolakoa eta Pedro Martinez Baltzolakoa aita.

Martinek zioenez, 8 urte lehenago tratua egin zuen Maria Perezekin zenbait ganadu Pagio baserrian erdi bana hazteko. Maria Perezek orduan ipinitako ganaduek, Martinek ipinitakoak baino 25 dukat gehiago balio zuten. Horrez gain, beste 22 dukat zor zizkion Martinek Maria Perezi.

Martin Argiainek Pagino baserria utzi egin nahi zuen, eta alkateari 29 dukat eman zizkion. Ganaduak bi taldetan bananduko zituzten, eta Maria Perezek bat hautatuko zuen. Bestea Martinentzat geratuko zen.

Alkateak diruak Blas Artazubiaga eskribauaren esku utzi zituen, eta bi aldeei entzunda arazoa zuzenbidez ebazteko prest agertu zen. Lekuko Joan Arrona, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Esteban Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 12] agiria).

- 1536-X-16an, Zestoan, Fernando Olazabal alkateordearen aurrean Blas Artazubiaga eskribauak 47 dukat eman zizkien Pedro Martinez Baltzolakoari eta alaba Maria Perez Baltzolakoari. Martin Argiain ere bertan zen. Aita-alabek diruak Domingo Urbietak, Domingo Arrona eta Klemente Aisororen aurrean jaso zituzten (ikus [XVI. m. (36-X) 10] agiria).

- 1536-IX-17an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Ana Arretxe alarguna eta Azpeitiko Barrenolako Migel Martinez Olaberrietakoa olagizona azaldu ziren. Aizarnako Maria Perez Potzuetakoak lehenago Ana Arretxeri 14 dukateko zorra egin zion, baina, zorra ordaindu ez ziolako, Anak Potzuetako baserria bahitu eta exekutatu egin zion. Egun hartan, ordea, Migel Martinezek 14 dukatak eta auzi-gastuak

ordaindu egin zizkion Ana Arretxeri, eta honek zorra Maria Perezi kobratzeko eskubideak eman zizkion.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona (Ana Arretxeren semea), Domingo Urbietta eta Joan Pagino (ikus [XVI. m. (36-X) 2] agiria).

1.1.12. Indotarren, ondaldetarren eta arreitzatarren kontratu eta agiriak

- 1536-III-22an, Zestoako Urbietan, Blas Artazubia-ga eskribauaren aurrean bi talde azaldu ziren: batetik, Joan Urbietta, Maria Urbietta alaba, Bartolome Etxabe suhia eta Domingo Lizarrarats, eta, bestetik, Martin Indo bere emazte Katalina Urbietarekin.

Martin Indok eta emazteak beste taldekoei demanda ipini zieten, Katalina ezkondu zenean agindu zioten arreo eta senipartea kobratu ezin zituelako. Ezkontza-kontratuan, hain zuzen, Domingo Lizarrarats Joan Urbietaren fidatzaile azaltzen zen.

Auziak eta gastuak alde batera uztearren, talde bakoitzak arbitro epaile bana izendatuko zuen, hauek beren epaia eman zezaten. Joan Urbietaren taldeak San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua izendatu zuten arbitro, eta Martin Indok eta emazteak Fer-

nando Olazabal medikua. Hamabi eguneko epean emango zuten epaia. Bi arbitroak ados ez bazeuden, hirugarren arbitroa biek hautatuko zuten. Hirugarrena aukeratzeko ados ez bazeuden, zozketaz erabakiko zen nork aurkeztutakoa izango zen hirugarren arbitro. Epaia betetzen ez zuen aldeari 100 dukateko isuna ezarriko zitzaion.

Katalina Urbietak eta Maria Urbietak zin egin zuten itunaren aurka ez zirela joango. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Ondalde, Pedro Ausoroetxea eta Joan Bengoetxea (ikus [XVI. m. (36-III) 12] agiria).

- 1536-III-28an, Zestean, Martin Indok eta Joan Urbietak izendaturiko San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Fernando Olazabal arbitroek beren epaia eman zuten. Katalina Urbietari Martin Indorekin ezkondu zenean agindutako arreo eta seniparteagatik, 50 dukat ordainduko zizkion Joan Urbietaren taldeak. Domingo Artiga eta Maria Beltran Urbietta guraso zenen ondasunen seniparteagatik zegokion kopuru hori Katalinari, nahiz eta honek ordurako 130 kintal burdina kobratuta eduki.

Delako 50 dukatak epeka ordainduko zizkieten: 20 dukat hurrengo San Joan egunean, 10 dukat hurrengo Eguberri egunean, eta beste 20 dukat 1537-III-28an.



1.15. irudia. Urbietta baserria.

Diru haiek Domingo Urbietak (Katalinaren anaiak) edukiko zituen, eta arrebak arreo eta jantziak erosi ahala emango zizkion. Eskribau-gastuak bi aldeek erdi bana ordainduko zituzten. Esteban Eztiola eskribauaren aurrean lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Gregorio Elizalde, Klemente Aisoro eta Martin Esteban Makatzaga.

- 1536-III-30ean, Zestoan, Esteban Eztiola eskribauak Domingo Lizarraratsi arbitroen epaiaren berri eman zion. Debako Joan Lizarrarats eta Julian Otalora izan ziren lekuko.

- 1536-IV-1ean, Zestoan, Esteban Eztiolak Joan Urbietari eman zion epaiaren berri. Joan Arrona eta Julian Olazabal lekukoen aurrean.

- 1536-IV-1ean, Zestoan, Esteban Eztiolak Martin Indori jakinarazi zion epaiak zioena, Zestoako Joan Pagino, Debako Joan Oviden eta Orioko Migel Oribar lekuko izanik. Martinek ez zuen epaia onartu, eta gora jotzeko asmoa adierazi zuen.

- 1536-IV-2an, Aizaman, Katalina Urbietari eman zion eskribauak epaiaren berri, Joan Majado de Pozaren eta Joan Artigaren aurrean (ikus [XVI. m. (36-III) 16] agiria).

- 1536-V-20an, Zestoako errebaletan, Joan Fernandez Arreizakoak eta Martin Artzuriagak kontratua egin zuten Blas Artazubiaga eskribauaren bidez. Martinek Joani Zestoako errebaletan zeukan etxea bere baratzearekin errentan eman zion 6 urterako. Hurrengo Pazko maiatzekoan hasiko zen epea, eta urtero urte amaieran 3 dukateko errenta ordainduko zion.

Martin Artzuriagak beretzat gorde zituen etxeko gela bat eta baratzearen laurdena, bertan egon nahi zuenerako. Joanez etxean egiten zituen hobekuntzak, gero errentatik deskontatu egingo zizkion Martini, baina errementerian sabaian eta tresnerian egindakoak ez.

Etxeari ordaintzea zegozkion zergak Martinen kontura izango ziren. Erreteila egin behar bazen, gastuak erdi bana izango ziren, baina teila Martinek ipiniko

zuen. Joan Fernandezek Martini 12 behi eman zizkion, 37 dukateko balioa zutenak, Itziarko Artzuriaga base-rrian erdi bana 6 urtez haz zitzaiz. 18,5 dukat Martinek ganaduaren etekinetatik ordainduko zizkion.

Errentamendu-kontratua lekuko hauek izan ziren: Domingo Arrona, Esteban Artazubiaga eta Pedro Akoa.

Jarraian, leku berean eta eskribau beraren aurrean, Martin Artzuriagak obligazio-agiria eman zion Pedro Akoari. Egun hartara arte elkarrekin izandako tratuen kontuak egin zituzten, eta Martini 14 dukateko zorra atera zitzaion. Hurrengo Pazko maiatzeko hasita urtebeteko epean ordainduko zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Joan Urbietari eta Martin Fernandez Edarritzagakoa (ikus [XVI. m. (36-V) 11] agiria).

- 1536-V-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Lizarrarats eta Martin Indo bere emazte Katalina Urbietarekin azaldu ziren. Martinek eta Katalinak auzia izan zuten Urbietako etxean Katalinari zegozkion arreo eta senipartekatik Joan Urbietari anaiarekin eta honen alaba eta suhiarekin.

San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Fernando Olazabal arbitroek epaia eman zuten. 50 dukat ordaindu behar zizkieten Katalinari, baina Martin Indok eta emazteak epaiari aurka egin zioten Gipuzkoako korejimendura gora jota. Hala ere, Domingo Lizarraratsekin tratua eginda, arbitroen epaia onartu egingo zuten eta Domingo Lizarrarats (Joan Urbietaren eta lagunaren fidatzaile izanik) auzi hartatik aske utziko zuten. Ordainagiria eman zioten, eta ez zioten ezer eskatuko, baina Joan Urbietari, alabari eta suhiari 50 dukatak eskatuko zizkieten.

Katalina Urbietak zin egin zuen agiri hark zioenari ez ziola aurka egingo. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Akoa, Esteban Edarritzaga eta Fernando Edarritzaga (ikus [XVI. m. (36-V) 12] agiria).

- 1536-X-16an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Martin Indo (Ka-

talina Urbietaren senarra), eta, bestetik, Joan Urbietta eta Domingo Urbietta anaia. Egun hartan Domingo Urbietta apaizaren eskutik Martin Indok lehen epeari zegokiona (20 dukat eta 875 maraiko auzi-gastuak) jaso zuen, eta Martinek ordainagiria eman zien. Lekuko Domingo Ezenarro, Martin Argiain eta Pedro Ausoroetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 11] agiria).

- 1536-VIII-21ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Aiako Domingo Azpitarte eta San Joan Zubieta, eta Zestoako Martin Ondalde elkartu ziren. Zestoarrak aiarrekin ordura arte izandako tratuen kontuak garbitu zituzten. Martinek aiarrek zor ziotena jaso zuen, eta ordainagiria eman zien. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Arrona, Domingo Urbietta eta Julian Olazabal (ikus [XVI. m. (36-VIII) 8] agiria).

- 1536-VIII-27an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Indo eta Joan Ondalde zestoarrak azaldu ziren. Joanek Martini 27 kintal burdina pletinatan balio zuen mandoa bere uhalekin saldu zion, eta Martinek, ordain gisa, burdinak Beduako errenterian hurrengo Eguberri egunean emango zizkion Joani.

Salerosketa-agirian lekuko Joan Olaberria, Martin Argiain eta Pedro Ausoroetxea zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VIII) 10] agiria).

- 1536-IX-2an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Santillanako markeserriko Cayongo Diego Gutierrez de la Vega eta Zestoako Joan Fernandez Arreizakoa elkartu ziren. Elkarrekin egun hartara arte izandako tratuen kontuak garbitu zituzten. Joan Fernandezi 11 dukateko zorra azaldu zitzaion, eta une hartan bertan 5 dukat ordaindu zizkion Diegori. Beste 6 dukatak han zegoen Bidaniko Martin Aburrutzak ordainduko zizkion epe baten barruan.

Joan Fernandezek konpromisoa hartu zuen Martin obligazio hartatik onik ateratzeko. Martinek zin egin zuen Diego Gutierrez ezaguna zuela. Agirian lekuko Zestoako Joan Urbietta eta Joan Igartza, eta Larrabetzuko Pedro Zubieta izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 2] agiria).

- 1536-IX-5ean, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Ibañarrietako Joan Belez Beduakoa eta Martin Indo azaldu ziren. Martinek Joan Belezi 6 dukat ordaindu zizkion, hurrengo urriaren amaierarako burdin mea garraia zezan. Beduatik Altzolarasko Bekolaraino eramango zuen burdin mea eta 9 marai kobratuko zuen kintal bakoitza garraiatzeagatik, hau da, guztira 6 dukat.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Pedro Akoa eta Bartolome Etxabe, eta Debako Joan Zubeltzu (ikus [XVI. m. (36-IX) 5] agiria).

- 1536-X-15an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Arano eta Joan Ondalde azaldu ziren. Joan Aranok Joan Ondalderi idi parean erosi zion, eta hurrengo Eguberri egunean ordainduko zion, Beduan 16,5 kintal burdina pletinatan emanda.

Salerosketa-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Iribarrena, Joan Zabala eta Joan Martin Indo (ikus [XVI. m. (36-X) 9] agiria).

- 1536-XI-10ean, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Idiazabal eta Joan Fernandez Arreizakoa bildu ziren. Joan Idiazabal, hain zuzen, Azpeitiko Pedro Urangaren morroi mandazaina zen. Obligazio-agiria eman zion Zestoako Joan Fernandez Arreizakoari lau egun barru Gaztelako 12 erreale eta 6 txanpon emateko. Joan Fernandezek, izan ere, Katalina Beduari mandazainak egindako 12 errealeko zorra ordaindu zion. Kartzelako gastuengatik Julian Olazabal probestuordeari 5 txanpon ordaindu zizkion, eta Fernando Olazabal medikuari beste txanpon bat, egin zuen agindu batengatik.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Urbietta, Joan Artiga eta Migel Sorazabal (ikus [XVI. m. (36-XI) 3] agiria).

- 1536-XII-2an, Zestoako Bekolan, Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako Martin Indo olagizona eta Joan Etxabe eta Martin Olazabal ikazkin zestoarrak elkartu ziren. Martin Indok Joan Aranburu-

1.16. irudia. Aizarnako eliza eta plaza.



goikoari Aiako Izeta aldean mendiak erosi zizkion, eta han aipatutako bi ikazkinek 750 karga ikatz egingo zizkioten. Urtebeteko epea zuten lanak amaitzeko. 3,5 txanpon balioko zuen karga ikatzak.

Martin Indok Joan Etxaberi eta Martin Olazabali 12 dukat aurreratu zizkien, eta 200 karga ikatz egiten zituztenean beste 12 dukat emango zizkien, eta handik aurrera egin ahala gainerakoa. Ikazkinek adostutakoa betetzen ez bazuten, eragindako kalte guztiak ordaindu beharko zituzten.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: San Joan Etxegarai, Martin Legarda eta Martin Arzallus (ikus [XVI. m. (36-XII) 1] agiria).

- 1536-XII-2an, Zestoako Bekolan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondalde eta Joan Belez Beduakoa azaldu ziren. Elkarrekin egun hartara arte izandako tratuen kontuak garbitu zituzten. Martinek Joani ordainagiria eman zion.

Jarraian, leku berean eta eskribau bera aurren zela, Martin Ondaldek ordainagiria eman zion Otxoa Martinez Beduakoa zenaren alargun Maria Arronari. Otxoa Martinezek zor zituen 6 kintal burdina alargunak ordaindu zizkion. Lekuko zestoar hauek izan

ziren: San Joan Etxegarai, Martin Indo, Martin Olazabal eta Joan Etxabe (ikus [XVI. m. (36-XII) 2] agiria).

- 1536-XII-3an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Bekolako Martin Indo olagizona, eta Zestoako Sebastian Oleden eta Joan Arriate ikazkinak. Martinek Zestoako Kontzejuari mendiak hartu zizkion Astuin ikatza egiteko. Han, gutxi gorabehera, 500 karga ikatz egingo zituzten ikazkinek urtebeteko epean. Karga ikatza 14 kanakoa izango zen, eta 3,5 txanpon balioko zuen.

Martin Indok 16 dukat eta 3 txanpon aurreratu zizkien egingo zuten lanaren kontura, eta gainerakoa ikatza atera ahala ordainduko zien. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Julian Olazabal, Martin Lizasoeta eta Joanes Potzueta (ikus [XVI. m. (36-XII) 3] agiria).

1.1.13. Amilibitarren, altzolarastarren, baltzolatarrren eta urbietatarren agiriak

- 1536-I-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bi zestoar hauek azaldu ziren: Frantzisko Olazabal eta Joan Martinez Amilibikoa (Zarauzko errodako eskribaua). Frantziskok lehenago Joan Martinezi 6 dukat eman zizkion, eta honek konpromisoa

hartu zuen hurrengo Eguberri egunean ordaintzeko. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa apaiza, Domingo Amilibia eta Txerran Amilibia (azken biak Joan Martinez Amilibikoaren semeak) (ikus [XVI. m. (36-I) 1] agiria).

- 1536-I-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana hauek hurbildu ziren: batetik Zestoako Maria Perez Altzolaraskoa alarguna, eta, bestetik, Debako Joan Baltzola eta Fernando Sorazabal. Azken biak Katalina Baltzolaren (Maria Perezen errainaren) izenean ari ziren. Katalina, alargundu ondoren, Martin Murgiarekin ezkondu zen (ikus [XVI. m. (36-I) 2] agiria).

Katalinak lehenago demanda ipini zuen korrejidoarearen aurrean Maria Perezen aurka, haren doteaz eta arreoaz ados ez zeudelako. Joandako Urteberri eguna arte, ordea, auzia etenda utzi zuten (ikus *IV ZESTOA XVI. MENDEAN (1531-1535)* liburuko [XVI. m. (35-XI) 1] agiria).

Egun hartan, berriz, etenaldia hurrengo Pazko garizumako eguna arte luzatzea erabaki zuten bi aldeek. Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Joan Gorosarri eta Joan Garratza (ikus [XVI. m. (36-I) 2] agiria).

- 1536-I-16an, Itziarren, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Debako Elbira Gaintza, seme Anton Gaintza eta honen emazte Ana Baltzola, eta, bestetik, Zestoako Maria Perez Altzolaraskoa portalekoa, Anaren ama. Lehen hirurek Maria Perezzi ordainagiria eman zioten, Ana ezkondu zenean agindu zituen lau oheak, zilarrezko katilua, kuxta eta arropak Maria Perezek eman egin zizkielako.

Ana Baltzolak zin egin zuen ordainagiriaren aurka ez zela joango. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Joan Artiga, Migel Artazubiaga eta Pedro Artzubiaga (ikus [XVI. m. (36-I) 8] agiria).

- 1536-I-21ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Aldalurrek eta Martin Amilibiak elkarren arteko harremanen kontuak egin zituzten. Martini 2 dukat eta 12,5 txanponeko zorra azaldu zitzaion. Hurrengo inauteri egunerako dukat bat ordainduko zion Joani, eta gainerakoa ekaineko San Joan egunerako.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Garratza, Martin Artzubiaga eta Klemente Aisoro (ikus [XVI. m. (36-I) 11] agiria).

- 1536-III-13an, Aizarnazabalgo Etxabebekoa jauregian, Zestoako Blas Artazubiaga eta Zumaiaiko



1.17. irudia.
Aizarnazabalgo
Amilibiaundi

Joan Perez Elorriagakoa eskribauak zeuden. Haien aurrean, batetik, Bartolome Etxabe (Zestoako Urbietara ezkondua) eta Domingo Urbietara apaiza azaldu ziren, eta, bestetik, Maria Joango Etxabe bere senar Joan Perez Mantzizidorkoarekin.

Joan Etxabek eta emazte Maria Etxabe zenek hiru seme-alaba izan zituzten: Bartolome, Maria Joango eta Domenja Etxabe, eta haiek hiltzean utzitako ondasunen partiketa egin nahi zuten. Joan Perez Mantzizidorkoak eta emazte Maria Joangok ahizpa Domenja Etxabe-Sarasolaren partea jasotzeko eskubidea zuten. Beraz, Maria Joangok eta senarrak bi heren jasoko zituzten, eta Bartolome Etxabek (edo honen izenean Domingo Urbietara apaizak) heren bat.

Maria Joango Etxabek zin egin zuen agiriak zioenaren aurka ez zela joango. Lekuko hiru hauek izan ziren: Zumaiako Joan Etxezarreta eta Joan Etxabe, eta Debako Martin Galarreta.

Jarraian, aipatutako bi eskribauak eta hiru lekukoak bertan zirela, Etxabeko ondasunen eta kobratzeko zituzten zorren zerrenda egin zuten. Hauek ziren ondasunak eta kobratzeko zorrak: Etxabekoa etxea bere lur, mendi, sagasti eta abarrekin; Azpia-zugoikoan zuten parte; Getariako Katalina Amilibiak emandako bi koroa; eztainuzko hiru pitxer; 7 behi, idi bat, 7 ahuntz eta 2 ardi; Debako Maria Otxoa Etxabekoak zor zuena; Joan Amilibia zenak zor zituen 24 dukat; Martin Aizarnazabal zenak zor zituen 28 dukat; Aizarnazabalgo Migel Agirre bikarioak eta Joan Agirre anaiak zor zituzten 12 dukat; Martin Akoa zenak zor zituen 12 dukat; Martin Garate debarrak zor zituen 12 dukat; Joan Amilibiak zor zituen 14 dukat; etab.

Bartolome Etxaberen eta arreben gurasoek, guztira utzi zituzten ondasun higigarriak 570 dukat eta 310 maraikoak ziren. Beraz, Bartolomeri (edo Domingo Urbietari) herena zegokion: 190 dukat eta 103,3 marai. Bartolomek lehendik 70 dukat eta 300 marai kobratuta zeuzkan. Gainera, gurasoen hiletetan egin-dako gastuen herena (13 dukat eta 105 marai) deskon-

tatu egin behar zitzaion. Beraz, Bartolome Etxabek 106 dukat eta 73,3 marai jaso behar zituen.

Horrez gain, Bartolomek Etxabekoa, Azpia-zun, Ozpideko haritzetan, Epelolako ganaduetan eta abarretan herena berea zuen. Bartolome Etxaberi zor zitzaiona kobratzeaz Domingo Urbietara apaiza arduratu zen, eta sortuko zitzaizkion gastuetarako 3.000 marai hartuko zituen (ikus [XVI. m. (36-III) 6] agiria).

- 1536-VI-18an, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik, Domingo Urbietara apaiza eta Bartolome Etxabe, eta, bestetik, Maria Joango Etxabe eta Joan Perez Mantzizidorkoa senarra.

Etxabekoa jauregiko ondasun guztiak bi arbitro epailek balioetsi egingo zituzten, eta herena ondasun higigarritan edota dirutan Domingo Urbietari eman- go zioten Joan Perezek eta Maria Joangok. Ondasun higiezin guztiak senar-emazteentzat geratuko ziren.

Joan Perezek eta Maria Joangok Zumaiako parteko Domingo Amilibia izendatu zuten arbitro, eta Domingo Urbietak Arroako Domingo Etxenagusia (edo Arretxe) hargina. Bi arbitroak ados ez bazuden, biek hirugarrena izendatu ahal izango zuten. Arbitroek 20 eguneko epea zuten epaia eta balioespena emateko.

Bartolome Etxabek eta arreba Maria Joango Etxabek zin egin zuten agiriak zioenari aurka ez ziotela egingo. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Martin Indo, Zumaiako Domingo Olaskoaga eta Debako Beltran Mantzizidor (ikus [XVI. m. (36-VI) 5] agiria).

- 1536-IV-1ean, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zumaiako Joan Blas Orio ontzi-maisua eta Zestoako Maria Perez Alzolaraskoa alarguna azaldu ziren. Mariak Joan Blasi Txiribogako presaren ondoan zeuzkan 20 haritz saldu zizkion 32 dukatean. Mariak diruak orduan kobratu zituen. Joan Blasek oholak aterako zituen haritzetatik, eta Maria Perezentzat izango ziren adarrak.



1.18. irudia.
Aizarnazabalgo
Etxabebekoa.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Klemente Aisoro, Joan Arano eta Joan Garratza (ikus [XVI. m. (36-IV) 1] agiria).

- 1536-IV-11n, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrera hauek hurbildu ziren: Azkoitiko Bartolome Munagarai eta Zestoako Pedro Martinez Baltzolakoa. Pedrok Bartolomeri zamak garraiatzeko mandarra saldu zion, eta azkoitiarrak balioren zati bat (10 dukat) zorretan utzi zion. 10 dukatak hurrengo Pazko garizumakotik hasita hurrengo urtebeteko epean ordainduko zion.

Obligazio-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Pedro Akoa eta Domingo Lizarrarats, eta Azkoitiko Joan Perez Antxietakoa (ikus [XVI. m. (36-IV) 6] agiria).

Joan Martinez Olotzagakoa kontularia Zestoako Bekolara ezkondu zenean, dote gisa bertako zorrak ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Hainbat ordaintzeta egin zuen, baina hartzaileek auzitara eraman zuten (ikus [XVI. m. (30-V) 5] agiria). 1532. urtean ere zenbait ordaintzeta egin zuen (ikus [XVI. m. (32-III) 4] agiria).

- 1536-IV-20an, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauaren aurrean Errezilgo Martin Ruiz Errekondokoa

eta Joan Martinez Olotzagakoa kontularia azaldu ziren. Martinek aitortu zuenez, kontulariak Bekolako Joan Lopez Altzolaraskoarentzat 90 dukat eman zizkion: lehenbizi 20 dukat 1527-V-2an, eta beste 70 dukat geroago, 1533-I-23a bitartean. Beraz, Martin Ruizek Joan Lopez Altzolaraskoarentzat ziren 90 dukat haiengatik ordainagiria eman zion. Lekuko, besteak beste, Domingo Aia eta Joan Uribe azpeitiarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 11] agiria).

- 1536-IV-21ean, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Amilibia azaldu zen. Ahalordea eman zien San Joan Amilibia semeari, Fernando Zubeltzu suhiari eta Gipuzkoako korrejimenduko Jeronimo Atxagari eta beste zazpi prokuradoreri, Zumaiako Otxoa Esnali 31 dukateko zorra kobra ziezaizuten. Ahalorde-agirian lekuko Joanes Potzueta apaiza, Sebastian Artazubiaga eta Joan Artiga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 12] agiria).

- 1536-V-3an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Urbieta eta Pedro Egaña gaztea azaldu ziren. Pedrok hain zuzen, Joan Zuoberen eskubideak zituen. Joan Urbietak Pedrori 14 dukat ordaindu zizkion, eta egun hartara arte elkarrekin izandako tratu guziten kontuak garbituta geratu ziren. Lekuko Domingo Arrona gaztea, Martin Este-

ban Makatzaga eta Martin Legarda izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 3] agiria).

- 1536-IX-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Argiain eta emazte Maria Urbietta aurkeztu ziren. Ahalordea eman zieten Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari, Jeronimo Atxagari eta beste bost prokuradoreri; baita Valladolidko Kantzelaritzako Joan Lopez Arrietakoari, Joan Lazkanori eta beste bost prokuradoreri ere. Haiek ordezkaturiko zituzten senar-emazteak auzietan. Lekuko Jakobo Ipintza eskribaua, Martin Indo eta Domingo Artazubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IX) 1] agiria).

- 1536-IX-29an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik Azpeitiko Joan Orbegozo, Joan Orbegozo semea eta Martin Orbegozo anaia, eta, bestetik, Zestoako Pedro Martinez Baltzolakoa. Pedrok azpeitiarrei burdinazko 24 kintal iltzeren balioa dirutan ordaindu zien, eta hauek hurrengo Eguberri egunerako iltze guztiak Beduako erreterian emango zizkioten. 12 kintal iltzek buru biribila izango zuten eta 1.000 iltzek 55 libra pisatuko zuten, eta beste 12 kintal iltzeak ere buru biribilekoak izango ziren, baina 1.000 iltzek 35 libra pisatuko zuten. Kintala ehun librakoa izango zen.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa, Joan Garratza eta Julian Olazabal (ikus [XVI. m. (36-IX) 9] agiria).

- 1536-X-13an, Deban, Joan Martinez Gorozikakoa eskribauaren aurrean Joango Amilibia debarrak ahalordea eman zion bere emazte Grazia Arrateri. Dirudienez senarrak bidaiaren bat zuelako, emazteak ahalmena izango zuen Joango Amilibiaren ondasunak kudeatzeko, kontratuak eta agiriak egiteko, eta haren izenean auzietan parte hartzeko.

Ahalorde-agirian lekuko hiru debar hauek izan ziren: Martin Otxoa Garatekoa, Martin Zelaieta eta Dabid Matusin (ikus [XVI. m. (36-X) 6] agiria).



1.19. irudia. Debako udaletxeko San Roke.

- 1536-XI-20an, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauarengana Joan Urbietta hurbildu zen. Ahalordea eman zien Bartolome Etxabe suhiari, eta Gipuzkoako korrejimenduko Jeronimo Atxagari, Joan Lopez Etxanizkoari eta beste zazpi prokuradorei. Joan Urbietak auzia zuen Martin Arginekin eta honen emazte Maria Urbietarekin, eta haren ordezkari izango ziren. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Domingo Artazubiaga eta Beltran Urbietta, eta Arroako Baltasar Segura (Fernando Sorazabalen morroia) (ikus [XVI. m. (36-X) 14] agiria).

- 1536-XII-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Baltzolak ordainagiria eman zion Mutrikuko Domingo Iturritzari. Mutrikuarrak Sevillan Domingo Lizarraratsek Pedrorentzat emandako 350 dukat ordaindu zizkion zestoarrari, eta Pedro Baltzolak ordainagiria egin zuen Domingo Lizarraratsentzat eta Domingo Iturritzarentzat.

Agirian lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Esteban Eztiola eskribaua, Domingo Urbieta eta Joan Ibañeta (ikus [XVI. m. (36-XII) 4] agiria).

1.1.14. Akertzarren, ezenarrotarren, areitzagatarren eta lizasoetatarren agiriak

- 1536-I-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak kontratua idatzi zuen. Batetik Frantzisko Olazabal zegoen, ontzi-maisuaren ordezkoa, eta, bestetik, Tolosa ondoko Anoetako Domingo Idiakaitz zurgina. Domingok, hain zuzen, Zestoako Esteban Akertzaren *La Trinidad* izeneko itsasontzian zurgin gisa eta marinel gisa lan egingo zuen. *La Trinidad* itsasontzia Santanderren zegoen orduan, eta handik lehenbizi Sevillara eta gero Indietara abiatuko zen.

Sevillarainoko bidaiari Domingo Idiakaitzek marinelaren soldata irabaziko zuen, eta handik aurrera marinelarena gehi itsasmutilaren soldata. Domingok bere lanera huts egiten baldin bazuen, Frantzisko Olazabalek Domingoren kontura ordezkoa ipini ahal izango zuen.

Kontratuan lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Fernando Olazabal medikua, Esteban Artazubiaga eta Joan Otaegi (ikus [XVI. m. (36-I) 6] agiria).

Urte hartan, ikusten denez, Sevillan bizi zen Esteban Akertza merkataria zestoarra bete-betean ari zen itsasoz Indietara salgaiak bidaltzen. Frantzisko Olazabalek, adibidez, urte hartan 1.564 marai zor zizkion salgaiengatik eta Ameriketako Santo Domingon Durangoko Andres Arrazolak 14.250 marai zor zizkion Estebanek bidalitako salgaiengatik.

Urte berean bere *La Trinidad* itsasontziarentzat Valentzian Indietatik itzulerako bidaiarako egindako aserugatik, zenbait merkataria valentziarrek zorra egin zioten Estebani: Francisco Espinosa Montesa jaunak 65.625 maraiko, Joan Herrada jaunak 3.125 maraiko, Bartolome Perezek 6.250 maraiko, Frances Leal jaunak 7.250 maraiko, Cosme Sierra jaunak 3.125 maraiko eta Andres Salomerok 3.125 maraiko¹,

- 1536-I-30ean, Zestoako Akoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Grazia Ezenarro, alaba Milia Edarritzaga eta honen senar Martin Esteban Makatzaga, eta, bestetik, Martin Ezenarro (Graziaren anaia). Graziak, alabak eta suhiak Ezenarroazpikoa baserrian seniparteagatik izan zitzaizketen eskubide guztiak Martin Ezenarrotari eman zitzaizkion, bi aldeak ados jarri zirelako.

Milia Edarritzagak zin egin zuen agiriak zioenaren aurka ez zela joango. Lekuko Joan Otaegi, Joan Arretxe eta Joan Etxegarai (Arretxen morroi zegoena) izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Martin Ezenarrok obligazio-agiria eman zion arreba Grazia Ezenarrotari. Hark honi 12 dukat zor zitzaizkion guztira seniparteagatik. Orduan bi dukat eman zitzaizkion, eta beste 10 dukatak epeka ordainduko zitzaizkion: erdia hurrengo inauterietatik urtebetera, eta beste erdia handik beste urtebetera (ikus [XVI. m. (36-I) 14] agiria).

- 1536-III-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Martin Ezenarro-Ibia eta Zestoako Martin Artzuriaga azaldu ziren. Lehenago Martin Ezenarro-Ibiak Martin Artzuriagari 12 dukat maileguz eman zitzaizkion, eta zestoarrak berme gisa zilarrezko katilua eman zion debarrari. Egun hartan debarrak Martin Artzuriagari katilua itzuli egin zion, eta 12 dukateko obligazioak indarrean jarraitzen zuela onartu zuten bi aldeek.

Lekuko Joan Oliden debarra eta Zestoako Martin Lizarrarats eta Joan Artzubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 13] agiria).

- 1536-IV-3an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean bi anaia elkartu ziren: batetik Joan Ezenarro zurgin-maisua, eta, bestetik, Martin Ezenarro. Joan Ezenarrok Ezenarroazpikoa etxean seniparteagatik zituen eskubideei uko egiteagatik, Martin anaiak 12 dukat emango zitzaizkion. Martinek hurrengo Pazko garizumakotik urtebetera Joan Ezenarrotaren lau

1.20. irudia.
Ezenarroazpikoa.



seme-alabei 3na dukat emango zizkien, eta eskubi-deak Martinentzat geratuko ziren.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Etxeberria, Sebastian Arano eta Joan Egaña (ikus [XVI. m. (36-IV) 2] agiria).

- 1536-V-3an, Zestoako errebalean, Blas Artazu-biaga eskribauaren aurrean Martin Artzuriaga merio-ordea eta Maria Otxoa Akertzakoa elkartu ziren. Maria Otxoak Martini, oihaletan eta jantzitan 5 dukaten balioa maileguz eman zion. Martinek zorra urtebeteko epearen barruan ordainduko zion. Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joan Urbieta, Joan Aldalur eta Martin Legarda, eta Debako Fernando Sorazabal (ikus [XVI. m. (36-V) 2] agiria).

- 1536-V-5ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Maria Joango Areitzaga alarguna eta Domingo Arantza zumaiaarak elkartu ziren. Maria Joangok Domingori Zumaiaiko Eizagirre errebalean zuen etxea saldu zion 25 dukatean. Domingok hantxe ordaindu zizkion dukatak, eta Maria Joangok ordainagiria eman zion. Maria Joango saiatu zen etxea ahalik eta prezio onenean saltzen, baina Domingoren eskaintza izan zen onena.

Etxeak mugakide hauek zituen: batetik Maria Agote zenaren ondorengoan etxea, bestetik Joan Askizuren baratzea, goitik Debako bidea eta behean kalea. Domingo Arantza etxera sartu zen, eta handik Maria Joango eta gainerakoak atera egin zituen. Gero atea itxi eta ireki egin zituen, jabe zela adieraztearren.

Salerosketa-agirian lekuko zumaiaar hauek izan ziren: Joanes Areitzaga eta Joan Mendaro apaizak, Anton Garate eta Joan Narruondo (ikus [XVI. m. (36-V) 4] agiria). Bi apaizek sinatu zuten agiria, eta hain zuzen Joanes Areitzaga hau Joan Sebastian Elkanorekin Moluketarako bigarren espedizioan parte hartutako bera da. Ez dakigu Maria Joango Areitzaga zein mailatako senide zuen Joanes Areitzagak. Badakigu, ordea, Joanesek Maria izeneko arreba zuela.

- 1536-V-8an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Zumaiaiko Katalina Areitzaga bere senar Domingo Iraetarekin, eta, bestetik, Domingo Arantza eta emazte Maria Perez Areitzagakoa. Katalina eta Maria Perez ahizpak ziren, Pedro Areitzaga eta Maria Argoain zenen alabak. Maria Perez zen ahizpa zaharrena.

Katalina Areitzagari bere gurasoen ondasunetan seniparteagatik 36 dukat, 2 ohe oso eta jantziak zegozkion, Maria Argoain ama zenak testamentuan hala aginduta. Domingo Arantzak eta Maria Perezek dena ordaindu zioten Katalinari: Maria Joango Areitzagari Zumaiaiko Eizagirre errebalear eositako etxea, 11 dukat, 2 ohe oso, jantziak eta beste dukat bat.

Ondorioz, Katalinak eta Domingo Iraetak (Domingo 25 urte bete gabea zelako), zin egin zuten agiri hark zioenaren aurka ez zirela joango. Ordainagirian lekuko hauek izan ziren: Joan Mendaro apaiza, Joan Migelez Askizukoa eta Joan Martinez Indanetakoa.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Katalina Areitzagak eta senar Domingo Iraetak, zin eginda, seniparteari ahizpa zaharrenaren (Maria Perez-en) alde uko egiteko agiria egin zuten (ikus [XVI. m. (36-V) 7] agiria).

- 1536-V-13an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Anton Garatek ordainagiria eman zion Estibalitz Elorriagari?. Lehenago Antonen alaba Maria Anton Garate eta Lorentzo Arantza (Estibalitzen semea) ezkondu egin ziren. Estibalitzen fidatzaile Joan Perez Iruñekoa izan zen. Anton Garatek bere alabaren dotearen zati gisa 20 dukat ordaindu zituen.

Gero, ordea, Maria Anton eta Lorentzo hil egin ziren, eta Estibalitzek, Joan Perezen bidez, doteko 20 dukatak itzuli egin zizkion Antoni. Lekuko hauek izan ziren: Zumaiaiko Joanes Areitzaga apaiza eta Domingo Dornutegi, eta Aizarnako Joan Igartza barberua (ikus [XVI. m. (36-V) 10] agiria). Ordainagiria Joanes Areitzagak sinatu zuen, hau da, Joan Sebastian Elkanoren Moluketarako bigarren espedizioan parte hartutakoak.

- 1536-V-23an, Zestoa, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Joan Akertza alarguna azaldu zen. Maria Joan bere seme Martin Akertza zenaren oinordeko zen, eta Sevillako Indietako Kontratazio Etxean 4.000 marai inguru zeuzkan kobratzeko. Haiak eta Martin seme zenaren beste edozein ondasun hartzeko ahalordea orduan Sevillan zebilen Esteban

Akertza semeari eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Eztiola eskribaua, Klemente Aisoro eta Joan Arrona (ikus [XVI. m. (36-VI) 7] agiria).

- 1536-VII-30ean, Aizarnan, Blas Artazubiagaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Martin Lizasoeta eta Joan Arano, eta, bestetik, Joanes Ipintza apaiza. Joan apaizak 11 dukat balio zuten bi zekor idisko eman zizkien, eta Martin Lizasoetak eta Joan Aranok 11 dukatak hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunetik hasita urtebeteko epean ordainduko zizkioten. Martinek konpromisoa hartu zuen Joan Arano obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko, zorra berea zuelako.

Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Migel Artazubiaga, Martin Esteban Makatzaga eta Domingo Aldalur (ikus [XVI. m. (36-VII) 10] agiria).

Jarraian, Blas Artazubiagaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Martin Lizasoeta eta Domingo Zulaika, eta, bestetik, Domingo Arano. Lehen biek Domingori 20 dukateko zorra egin zioten. Egun hartan bertan 4 dukat itzuli zizkioten, beste 6 dukat 20 egun barru emango zizkioten, eta gainerako 10 dukatak hurrengo Pazko maiatzekoan.

Domingo Zulaikak konpromisoa hartu zuen Martin Lizasoeta obligazio hartatik kalterik gabe ateratzeko, zorra berea baitzen. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Urbieta, Martin Esteban Makatzaga eta Domingo Aldalur (ikus [XVI. m. (36-VII) 11] agiria).

- 1536-VIII-9an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Maria Otxoa Narruondokoak ahalordea eman zion Zumaiaiko Pedro Zabalar. Elgoibarko Pedro Aranoren emazte Maria Joanezek anbarezko 61 ale handi zor zizkion Maria Otxoari, lehenago Maria Joanezek premia zuenean eman zizkiolako. Beraz, Pedro Zabala arduratuko zen zor hura Maria Otxoarentzat kobratzeaz.

Ahalorde-agirian lekuko zumaiaiar hauek izan ziren: Joan Gartzia Villafrancakoa, Joan Gorostiaga eta Domingo Areitzaga (ikus [XVI. m. (36-VIII) 2] agiria).

1.21. irudia. Arroako Akertzazar elurretan.



1.1.15. Beduatarren, arantzarren, edarritzagatarren, eta ganbaratarren agiriak

Joan Beltran Iraeta hil ondoren, Aizarnazabalgo eta Oikiako parroketako patronatua errege-privilegioaz Alonso Idiakaitz tolosarrak bereganatu zuen. Oikiako eta Aizarnazabalgo unibertsitateek auzitara jo zuten Zestoako Otxoa Martinez Beduakoari ahalordea emanda, baina gero, Otxoa Martinezi, egin zituen gastuak ez zizkioten ordaintzen. Ondorioz, bi unibertsitateak auzitara eraman zituen. Otxoa Martinez hil ondoren, haren seme-alaba adingabeek eman zioten jarraipena auziari (ikus [XVI. m. (31-IV) 16], [XVI. m. (33-IX) 1], [XVI. m. (34-I) 1] eta [XVI. m. (35-I) 1] agiriak).

- 1536-I-11n, Azpeitian, Gipuzkoako Alonso del Barco korrejidore eta doktoreak agindua eman zuen. Otxoa Martinez zenaren aldeak Beltran Mendia eskribau zarauztarra izendatu zuen Otxoak egindako gastuen kontuak zehazteko. Oikiak eta Aizarnazabalek ez zuten beren kontularia izendatu agindutako epean, eta, ondorioz, korrejidoreak Azpeitiko Joan Akemendi eskribaua izendatu zuen. Bi kontulariek elkarrekin Otxoa Martinezen gastuak aztertu eta beren iritzia emango zioten.

- 1536-I-17an, Azpeitian, Otxoa Martinez zenaren anaia Lantzarote Beduak Beltran Mendiari korrejidorearen agindua bete zezala eskatu zion, Joan Zornotza eta Esteban Akertza lekukoen aurrean.

- 1536-II-25ean, Beltran Mendiak bere azterketa egin zuen Martin Otxoa Beduakoak egindako gastuez. Bere iritziz hauek ordaindu behar zitzaizkion: 1) Bergarara joanda Errege-kontseilura agiriak bidaltzeagatik eta Lezora Untza batxilerrarengana iritzi eske joateagatik 24 erreal; 2) Blas Artazubiagari ahalordeagatik eta beste agiri batzuegatik emandako 5 erreal eta 3 txanpon; 3) Luis Perez lizentziatu eta korrejidoreak Otxoa Martinez preso eta erbesteratuta eduki zuenean ipinitako 6.000 maraiko isuna; 4) 1531-VIII-17an preso hartu eta 52 egunez egon zelako, 208 erreal; 5) Iruñean Ollakerizketa idazkariari ordaindutakoa, 4 dukat; etab.

Beltran Mendiaren iritziz Oikia eta Aizarnazabalgo unibertsitateek Otxoa Martinezen ondorengoei guztira 20.952 marai ordaindu behar zieten. Horiez gain Otxoa Martinezek legegizonei, prokuradorei eta eskribaueri beste zenbait ordainketa (agirietan agertzen ez zirenak) egin omen zizkien. Beltran Mendiak zioenez, Joan Akemendi dei egin zion elkarren artean Otxoa Martinezen gastuak argitzeko,

baina Joaneke lehenbizi Beltranen azterketa eta iritzia eduki nahi izan zuen.

Beltran Mendiak bere iritzia Getarian Domingo Otxoa Portukoa eskribauaren aurrean eta lekuko Getariako Sebastian Zabalaga eskribaua eta Joan Perez Aranokoa izanik eman zuen.

Jarraian, Joan Akemendi azpeitiarrak Beltran Mendiak egindako ikerketaren eta iritzia eman zuen. Oro har Beltranek adierazitakoa ontzat hartu zuen.

- 1536-XI-10ean, Azpetian, Zumaian bizi zen Lantzarote Beduak (Otxoa Martinez zenaren anaiak) korrejidoreari eskea egin zion auzi hartan epaia eman zezan.

- 1536-XII-26an, Azpeitian, korrejidoreak agindua bidali zuen Beltran Mendiak eta Joan Akemendik elkarrekin eta batera gastuak aztertu eta Otxoa Martinezen ondorengoei ordaindu beharreko kopurua zehatz eman zezaten (ikus [XVI. m. (36-I) 4] agiria).

- 1536-I-23an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Arano ikazkina (Edarritzagako Iraeta etxean bizi zena) eta Joan Arano elkartu ziren. Elkarren artean egun hartara arte izandako harreman eta tratuen kontuak egin zituzten. Domingok Joani, gainera, 14,5 dukaten ordainagiria eman zion, lehenago egindako zor hura ordaindu egin zuelako. Horrez gain, Domingok Zabalako serorari dukat bat emango zion Joanen partetik.

Jarraian Aiako Migel Aginetak ordainagiria eman zion Joan Aranori, lehenago egindako 6 dukateko zorra ordaindu egin ziolako. Lekuko Zestoako Domingo Aranguren Pedro Iribarrena eta Domingo Arrona gaztea izan ziren (ikus [XVI. m. (36-I) 12] agiria).

Martin Fernandez Edarritzagakoa zestoarrak auzia zuen Zumaiko Marina Garratzarekin, eta 1536-I-29an, Gipuzkoako Alonso del Barco korrejidoreak Azpeitian epaia eman zuen. Korrejidoreak Martin Fernandez kondenatu egin zuen 9 eguneko epean Ma-

rina Garratzari 50 kintal burdina eta auzi-gastuak ordaintzera.

- 1536-I-31n, Azpeitian, Martin Fernandez izenean Beltran Arizmendi prokuradoreak epaiaren aurka gora jotzeko baimena eskatu zion korrejidoreari, eta bere asmoa lortu egin zuen, Domingo Amilibia eta Pedro Lopez Gabirikoa lekuko izanik.

- 1536-II-27an, Valladolidko Kantzelaritzan, korrejimenduko Joan Eizagirre eskribauak idatzitako prozesua aurkeztu zuten, apelazio mailan.

- 1536-III-18an, Zumaian, Joan Perez Elorriagakoa eskribauaren aurrean Marina Garratza aurkeztu zen. Zestoako Martin Fernandez Edarritzagakoarekin eta Joan Gorosarri zenaren oinordekoekin auzia zuen Valladolidko Kantzelaritzan. Auzi hartarako ahalordea eman zien zenbait prokuradoreri: batetik, Gipuzkoako korrejimenduko Joan Lopez Etxanizkoari, Joan Perez Arranibarkoari eta beste bi prokuradoreri, eta, bestetik, Valladolidko Kantzelaritzako Frantzisko Orori, Pedro Arriolari eta beste bi prokuradoreri.

Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Joan Blas Orio, Nikolas Portukoa eta Joan Fernandez Dornutegikoa. Korrejimenduko Joan Eizagirre eskribauak kopia atera zion ahalorde-agiriari (ikus [XVI. m. (36-I) 13] agiria).

- 1536-II-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak salerosketa-agiria idatzi zuen. Zestoako Maria Antxietak eta senar Martin Sastarrainek Maria Joango Ganbara (edo Akertza) alargunari Baio aldean sagastia saldu zioten. Sagastiaren azalera 80,5 sagarrondo unitatekoa zen, unitate bakoitza 10 besoko neurrikoa izanik. 17 txanpon balio zuen unitate bakoitzak.

Sagastiaren mugak hauek ziren: Gesalagako ibira zihuan bidea, Domingo Arronaren sagastia, Maria Joango Ganbararen lurrak eta Maria Antxietaren lurrak. Maria Joangok Baio aldera joateko bide-zorra ere hartu zion Maria Antxietari. Beraz, Maria Antxietaren beste lursaila (saldu gabekoa) bide-zorrik gabe geratu zen.

1.22. irudia. Aizarnako Aranguren.



Maria Antxietak zin egin zuen salerosketa-agiriaren aurka ez zela joango. Lekuko Martin Zubiaurre, Anton Arretxe eta Joango Zubiaurre zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-II) 1] agiria).

- 1536-III-8an, senar-emazteek Maria Joango alarguna sagastira sartu zuten, eta haiek irten egin ziren. Maria Joangok aiztoaz sagarrondo baten adarrak ebaki eta lurra aitzurtu egin zuen, jabe zela erakustearren. Lekukoetako bi zestoar hauek izan ziren: Julian Olazabal probestuordea eta Blasio Amilibia (ikus [XVI. m. (36-III) 5] agiria).

- 1536-III-4an, Zestoan, Esteban Eztiola eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Joan Balda azpeitiarra, eta, bestetik, Zestoako Joan Bengoetxea eta Esteban Edarritzaga. Bi aldeek kontratua egin zuten, Joan Baldak bi zestoarentzat lan egin zezan. Urtero 10 dukat eta aihotz batzuk emango zizkioten. Lehen 10 dukatak orduan ordaindu zizkioten, eta, handik aurrera, onartutako epeetan egingo zizkioten ordainketak.

Mantenua eta aterpea ere emango zizkioten Joan Baldari. Kontratuan lekukoetako bi hauek izan ziren: Azpeitiko Esteban Goiatz merkataria eta Zestoako Joan Zubiaurre (ikus [XVI. m. (36-III) 1] agiria).

- 1536-II-20an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Joan Zelaia “Bel-tza”, Joan Arano, Joan Aurrekoetxea, Martin Esteban Makatzaga, Joan Ereño eta Lope Zelaia. Hauek ziotenez, aurreko urtean Martin Erreterriak armada prestatu zuen (Kahir ad-Din “Bizargorri” otomandarraren aurka Tunis konkistatzera), alkate Joan Bengoetxea zelarik, eta beste zestoar batzuek bezala, beren arma, balezta eta eskopetak eman zizkioten Zestoatik gerra hartara joan zirenei. Dirua ere aurrerratu zuten.

Hala ere, armak eta dirua ez zizkioten itzuli, eta Joan Bengoetxea eta Zestoako Kontzejua auzitarra eramateko, Gipuzkoako korrejimenduko Beltran Arizmendi, Jeronimo Atxaga eta Joan Perez Arranibarkoa prokuradoreei ahalordea eman zieten. Ahalorde-agirian lekuko Pedro Iribarrena, Joanes Potzueta eta San Joan Egaña izan ziren (ikus [XVI. m. (36-II) 6] agiria).

- 1536-III-4an, Zestoan, Esteban Eztiola eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Joan Balda azpeitiarra, eta, bestetik, Zestoako Joan Bengoetxea eta Esteban Edarritzaga. Bi aldeek kontratua egin zuten, Joan Baldak bi zestoarentzat lan egin zezan. Urtero 10 dukat eta aihotz batzuk emango zizkioten. Lehen 10 dukatak orduan ordaindu zizkioten, eta,



1.23. irudia. Goiazko Aldekoetxea.

handik aurrera, onartutako epeetan egingo zizkioten ordainketak.

Mantenua eta aterpea ere emango zizkioten Joan Baldari. Kontratuan lekukoetako bi hauek izan ziren: Azpeitiko Esteban Goiatz merkataria eta Zestoako Joan Zubiaurre (ikus [XVI. m. (36-III) 1] agiria).

- 1536-V-27an, Cadizen, bertako Manuel Ferraz eskribauaren aurrean Debako Joan Otxoa Beduakoa istinkaria azaldu zen. Joan Otxoaren emazte Maria Martinez Armendikoa hil egin zen, eta seme-alabarik ez zuten izan. Beraz, ezkontzara ekarritako ondasunak banatu egin behar ziren. Emazte zenarenak Domenja Armendia koinatari eman behar zitzaizkion, eta gainerakoak Joan Otxoa Beduakoarentzat izango ziren.

Ondasunen banaketa egiteko ahalordea eman zien, orduan Cadizen ez zeuden, Debako Anton Indanetari eta Pedro Ibañez Arantzakoari. Haiiek epaileak aukeratu ahal izango zituzten, eta Joan Otxoaren izenean auzitara jo ahal izango zuten. Lekuko hauek izan ziren: Debako Joan Arantza, Joan Martinez Irametegikoa, istinkaria, eta Jeronimo Rufin (ikus [XVI. m. (36-V) 16] agiria).

1.1.16. Zuubetarren, eztiolarren, lasaotarren eta pozatarren agiriak

- 1536-III-5ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Zuube eta Joango Zuube anai-arrebak elkartu ziren. Joangok Domenjari 8 dukat ordaindu zizkion, eta beste 4 dukat Pazko garizumakoan ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Domenjak ordainagiria eman zion, eta horrela aitarekin eta anaiarekin zuen auziagatik zegokiona kobratu zuen. Egun hartara arteko elkarren tratuen kontuak ere garbituta geratu ziren.

Lekuko Joan Gorosarri, Joan Zubiaurre eta Pedro Olaskoaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 3] agiria).

- 1536-III-21ean, Zestean, Blas Artazubiaga eskribauarengana Joan Gorosarri hurbildu zen. Joan Gorosarri bere arreba Maria Joango Gorosarrik eta Grazia Gorosarrik (eta hauen senar Anton Edarritzagak eta Joan Majado de Pozak) 20 dukat zor zizkioten Gorosarriegoiena etxean zuen seniparteagatik (ikus [XVI. m. (35-VIII) 10] agiria).

Dena den, Zestoako Esteban Eztiola eskribauak 20

dukat haiek 10 dobloitan ordaindu egin zizkion, eta, ondorioz, Joan Gorosarik arrebei eta koinatuei 20 dukat kobratzeko eskubide guztiak Esteban Eztiolari eman zizkion. Lekuko Domingo Urbietta, Julian Olazabal eta Domingo Gorosarri izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 11] agiria).

- 1536-IV-30ean, Zestoako errebalean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Azpeitiko Joan Badiola eta Zestoako Joan Majado de Poza azaldu ziren. Lehenago Azpeitiko Pedro Ibañez Irarragakoa eskribauaren aurrean Anton Edarritzagak (Joan Majado de Pozaren aitagarrebak), 18 dukateko zorra egin zion Joan Badiolari. Antonek 3 dukat itzuli zizkion, baina gero, egun hartan, Joan Majado de Poza suhiak gainerrako 15 dukatak eman zizkion Joan Badiolari. Ondorioz, 15 dukat Antoni kobratzeko eskubideak suhiari eman zizkion.

Lekuko Joan Artiga, Martin Esteban Makatzaga eta Esteban Edarritzaga izan ziren (ikus [XVI. m. (36-IV) 15] agiria).

- 1536-V-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin haiek bildu ziren: batetik, Nikolas Martinez Egiakoa (Iraetako jauna) bere emazte Maria Beltran Iraetarekin, eta, bestetik, Joan Majado de Poza (Fortun Santxez Iraetako artzapez zenaren morroia). Fortun Santxezek bere testamentuan oinordeko unibertsal Maria Beltran Iraeta iloba izendatu zuen, eta Joan morroiari 400 dukat agindu zizkion.

Artzapezak, ordea, zorrak utzi zituen, eta bi aldeek (Maria Beltranek eta Joanek) ituna egin zuten auzitan ez ibiltzarren. 400 dukat haiek erdi bana kobratuko zituzten lau epetan. 1535. urteko Domu Santu eguneko 100 dukatetatik 60 morroiarentzat izango ziren, eta 40 Maria Beltranentzat. 1536. urteko Domu Santuetan 100 dukat erdi bana hartuko zituzten. 1537. urteko Domu Santuetan ere berdina, eta 1538. urtekoan 60 Maria Beltranentzat eta 40 Joan morroiarentzat.

Maria Beltran Iraetak zin egin zuen itunak zioenaren aurka ez zela joango. Lekukoetako bi Joanes

Potzueta eta Joanes Ibañeta izan ziren (ikus [XVI. m. (36-V) 1] agiria).

- 1536-VI-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Zuube (Joan Goienetxearen alarguna) azaldu zen. Domenjaren anaia Joan Zuube zilargin zenak oinordeko unibertsal izendatu zuen, eta gorteko Pedro Migel zilarginak zorra egin zion Joan Zuuberi. Zor hartatik Migel Artazubiagak ahalordeaz 100.00 marai kobratu zituen Domenjarentzat, eta beste 42.000 marairengatik Pedro Migel zilarginak (eta Madrilgo Gonzalo Maluenda zilargin fidatzaileak) obligazio-agiria eman zioten (ikus *IV ZESTOA XVI. MENDEAN (1531-1535)* liburuko [XVI. m. (35-XII) 2] agiria).

Pedro Migelek zorraren azken zatia (42.000 marai) 1536. urteko Pazko garizumakoan ordaindu behar zuen, Madrilen (Errege-kontseilua bertan zela) Diego San Martin eskribauaren bidez Migel Artazubiagari 1535-X-14an emandako obligazioaren arabera. Pedro Migelek, ordea, ez zuen ordaindu, eta Domenja Zuubek ahalordea eman zien, zorra kobra zezaten, honako hauei: Burgosko Frantzisko Burgos jaunari eta Zestoako Pedro Otxoa Artazubiagakoari (Kristobal Haro jaunaren morroiari), eta Esteban Eztiola eta Jakobo Ipintza eskribauei.

Ahalorde-agirian lekuko haiek izan ziren: Zestoako Esteban Artazubiaga, Joan Fernandez Arreitzakoa eta Domingo Lizarrarats, eta Debako Domingo Larretxe (ikus [XVI. m. (36-VI) 8] agiria).

- 1536-VI-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren bidez Esteban Eztiolak ahalordea eman zion emazte Maria Martinez Amilibikoari. Auzia zuen Maria Martinez Altzolaraskoarekin eta honen seme Jakobo Ipintzarekin, Zestoako Kontzejuak egindako zenbait soldata-banaketari buruz.

Estebanek, halaber, ahalordea eman zien Zestoako Klemente Aisorori eta Migel Artazubiagari, eta Gipuzkoako korrejimenduko Jeronimo Atxagari, Joan Perez Arranibarkoari, Frantzisko Lopez Gallaiste-



1.24. irudia. Akoako Zuube edo Txaperi.

gikoari eta beste hiru prokuradoreri. Ahalorde-agirian lekuko hauek izan ziren: Zestoako Esteban Aisoro bikarioa eta Antonio Lizarrarats apaiza, eta Aiako Domingo Urrutia (ikus [XVI. m. (36-VI) 9] agiria).

- 1536-XI-4an, Zestoako errebalear, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Asentzio Igartza eta Ana Lasao emaztea azaldu ziren. Senar-emazteek auzia zuten korrejimenduan Getariako Martingo Urkidirekin. Ahalordea eman zieten Beltran Arizmendi-ri, Jeronimo Atxagari eta korrejimenduko beste zazpi prokuradoreri, ordezkak zituzten.

Lekuko zestoak hauek izan ziren: Joan Urbie-
ta, Domingo Artazubiaga eta Martingo Artazubiaga (Blas Artazubiagaren semea) (ikus [XVI. m. (36-XI) 2] agiria).

1.1.17. Bergara, Zumaia eta Sevillako zenbait kontratu eta agiri

- 1536-VI-29an, Bergaran, bertako Pedro Perez Arozte-
gikoa eta Andres Martinez Irazabalgoa eskribauek agi-
ria egin zuten. Bertan ziotenez, Joan Perez Zabalakoa
batxilerrak eta emazte Elena Arabak errege-baimenaz
maiorazkoa sortu zuten. Bernaldino Zabala semea
izendatu zuten oinordeko. Gainera, lau alaba zituzten:

Marina Lopez Zabalakoa, Leonor Zabala, Katalina Za-
bala eta Maria Zabala. Hauetako bakoitzari bere dotea
agindu zioten. Ondorioz, alabek onartu eta zin egin zu-
ten agiriak zioenaren aurka ez zirela hasiko.

Agirian lekuko bergarar hauek izan ziren: Martin
Saez Oxirondokoa, San Joan Saez Oxirondokoa eta
Joan Aroztegi (ikus [XVI. m. (36-VI) 10] agiria).

- 1536-VII-11n, Zumaian, Joan Arbestain eskri-
bauaren bidez Joan Askizuk ahalordea eman zien
emazte Madalena Narruondori eta Joan Perez Elorria-
gakoari. Horrela Joan Askizuren zorrak kobratu eta
ordainagiriak eman ahal izango zituzten, eta auzitan
ere haren prokuradore izango ziren. Lekuko zumaiar
hauek izan ziren: Joan Perez Iruñekoa, Domingo
Errezusta eta Iñigo Artzuriaga? (ikus [XVI. m. (36-
VII) 6] agiria).

- 1536-X-29an, Sevillako Diego Martinez banka-
riaren etxean, Pedro Castellanos eskribauak ordainagi-
ria idatzi zuen. Martin Gartzia Oñatz-Loiolakoak (San
Inazioren anaia eta Loiolako jaunak) eta emazte Ma-
dalena Araotzek, Azpeitian Pedro Gartzia Loiolakoa
eskribauaren bidez ahalordea eman zieten 1536-VI-
26an Joan Martinez Lasaokoari eta Nikolas Aranburu
gipuzkoarrari, Sevillan zor bat kobratu zezaten.

Joan Martinez Lasaokoa Sevillako kardinal eta artzapezpikuaren idazkaria zen, eta Nikolas Aranbururekin batera Sevillan guztira 2.500 dukat kobratu behar zituzten Martin Gartziarentzat eta Madalena-arentzat. Sevillan Joan Lopez Errekaldekoa kontulari zenaren emazte Lorentza Idiakaitz azkoitiarrak 2.500 dukateko dotea agindu zien Martin Gartziari eta Madaleni, alaba Joana Errekalde Beltran Loiolarekin (loiolatarren semearekin) ezkondu zenean.

Lehenago, irailaren 9an, Sevillako Pedro Castellanos eskribauaren aurrean dote haren 500 dukat jaso zituen Nikolas Aranburuk, Lorentza Idiakaitzek Antso Lopez Otorakoa lizentziatu eta Sevillako epailearen bidez emanda. Egun hartan, berriz, beste 2.000 dukat kobratu zituzten Joan Martinezek eta Nikolasek lizentziatuak emanda. Hauek ordainagiria eman zieten Lorentza Idiakaitzi eta Beltran Loiolari. Lekuko Sevillako Gaspar Caballero eta Melchor Portes eskribauak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 18] agiria). Euskaldunak jaioterritik urrun elkar nola ezagutzen zuten eta nola elkartzen ziren adierazten du agiri honek.

- 1536-XI-11n, Zumaian, portaleko arteen ondoan Kontzejua bildu zen, Joan Arbestain eskribaua bertan izanik. Han ziren Domingo Fernandez Dorutegikoa eta Martin Diaz Mirubikoa alkateak, Anton Garate

sindikoko prokuradorea, probestua, Joan Ruiz Arteagakoa, Andres Perez Indanetakoa eta beste hainbat herritar.

Hil hartan Seguran izango ziren Batzar Nagusiatarako ahalordea eman zieten Joan Saez Zumaiakoari, Frantzisko Dorrekoari, Joan Fernandez Dornutegikoari eta beste lau herritarri prokuradore izan zitezten. Ahalorde-agirian lekuko zumaiar hauek izan ziren: Domingo Arrieta, Migel Sagarzarreta eta Joan Indo (ikus [XVI. m. (36-XI) 5] agiria).

- 1536-XI-14an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: batetik, Eibarko Andres Mallabia merkataria, eta, bestetik, Ondarroako Kristobal Eizagirre. Andresek zortzi eguneko epean 31 dozena haga, bedereatzi beso luzekoak, eta beste 3 dozena luzera berekoak, baina forma desberdinekoak, emango zizkion Kristobali Oikiako errenterian. Dozena hagak zilarrezko 8 erreal balioko zuen.

Ordainetan, Kristobalek linaza-olioa emango zion Deban Andresi, hagak jaso ahala. Anega olioaren prezioa 13 errealekoa izango zen. Kontratuan lekuko zumaiar hauek izan ziren: Andres Perez Indanetakoa, Joan Perez Elorriagakoa eta Joan Migelez Askizukoa (ikus [XVI. m. (36-XI) 6] agiria).

1.25. irudia. Zumaiako itsasadarra.



1.1.18. Zestoarren beste zenbait tratu eta agiri

- 1536-II-3an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: Eibarko Andres Mallabia (Pedro Ibañez Mallabikoaren semea), eta Domingo Zelaia koinatua. Andresek Domingori ahalordea eman zion, Durangoko Migel Arratia lantzagileari bi dukateko balezta, dukat bateko lantza handia eta beste zenbait gauza Andresentzat kobra ziezazkion.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Gorosarri, Pedro Artazubiaga eta Joan Artazubiaga (ikus [XVI. m. (36-II) 2] agiria).

- 1536-III-5ean, Zestoan, Martin Gorosarri eta Martin Izeta fidatzailea Joan Ereñorekin elkartu ziren. Joanek beste biei urrezko 10 dukat maileguz eman zizkien, eta hauek zorra hurrengo Santiago egunerako ordainduko zioten. Blas Artazubiaga eskribauak idatzitako agirian lekuko Martin Zubiaurre, Joan Legarda eta Domingo Gorosarri izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 2] agiria).

- 1536-III-7an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Maria Otxoa Narruondokoa alargunak ahalordea eman zien Bartolome Txiriboga anaiari eta Valladolidko Kantzelaritzako Joan Otxoa Urkizukoari eta beste bi prokuradoreri. Maria Otxoak auzia zuen Zumaiaiko Maria Domingez Iraetakoarekin, honen seme Domingo Dornutegirekin eta Teresa Areitzaga amarekin, haien etheen arteko hormari buruz.

Gipuzkoako korrejidoreak epaia eman zuen, eta Maria Otxoak Kantzelaritzara jo nahi zuen apelazioa eginda. Ahalorde-agirian lekuko Luis Izeta, Joan Elo-la eta Joan Segura izan ziren (ikus [XVI. m. (36-III) 4] agiria).

- 1536-V-8an, Zestoan, Azpeitiko Asentzio Eizagirek onartu egin zuen idatziz Maria Perez Idiakaizkoa andreari 100 dukat zor zizkiola, zor handiagoaren zati gisa. Hurrengo ekaineko San Joan egunean ordainduko zizkion (ikus [XVI. m. (36-V) 8] agiria).

- 1536-VII-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Oliden eta Zumaiaiko Joan Perez Etxezarretakoa elkartu ziren. Zumaiaiko Joanes Amezketak 2,5 dukateko zorra egin zion Zestoako Maria Olideni, baina Joan Perezek zor hura bere gain hartu zuen. Dukat bat hurrengo San Migel egunean ordainduko zion, eta 1,5 dukat hurrengo Eguberri egunean.

Joanes Amezketak konpromisoa hartu zuen Joan Perez Etxezarretakoa obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko. Lekuko honako hauek izan ziren: Azpeitiko Diego Arana, eta Zestoako Joanes Potzueta, Pedro Ziorraga, Esteban Artazubiaga eta Joan Arrona (ikus [XVI. m. (36-VII) 9] agiria).

- 1536-VIII-10ean, Beaingo San Lorenten, Blas Artazubiagaren aurrean Zestoako Pedro Akoa eta Arroako Esteban Arbe elkartu ziren. Lehenago Pedrok Estebani eta honen lagunei 50 kintal burdina maileguz eman zizkien, baina egun hartan Estebanek bere parte (12 kintal) ordaindu zion. Ondorioz, Pedrok aske utzi zuen Esteban lehen egindako obligazio-agiritik, baina ez Estebanen lagunak. Lekukoetako bi Joan Etxezarreta zumaiarra eta Domingo Artazubiaga zestoarra (Blas Artazubiaga eskribauaren semea) izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VIII) 3] agiria).

- 1536-VIII-27an, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Etorrazpiko Domingo Ameznabar eta Joan Ereño azaldu ziren. Joanek Domingori 4 dukat balio zuen hezitako idia saldu zion, eta honek zorra hurrengo ekaineko San Joan egunean ordainduko zion. Domingo Zuaznabarrek zin egin zuen, 25 urte bete gabea zelako, agiriak zioenaren aurka ez zela joango. Lekuko Pedro Ausoroetxea, Bartolome Etxabe eta Martin Ondalde gaztea izan ziren (ikus [XVI. m. (36-VIII) 12] agiria).

- 1536-IX-4an, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zumaiaiko Pedro Etxabe eta Zestoako Joan Pagino elkartu ziren. Joanek hain zuzen Oikiako kofradiarako behi eta zekor batzuk eman zizkien Pedro Etxaberi eta Joan Mirubiari. Prezioagatik, ordea,

auzia izan zuten, eta Probintziako korrejidoreak epaia emana zuen Joan Paginoren alde.

Joan Mirubiak epaia onartu egin zuen, baina Pedro Etxabek gora jo zuen. Hala ere, egun hartan Pedro Etxabek uko egin zion bere apelazioari, eta bere parte (baita auzi-gastuen parte ere) ordaintzeko prest agertu zen. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Ibañez Amilibikoa eskribaua, Pedro Olaskoaga eta Txomin Artazubiaga (ikus [XVI. m. (36-IX) 3] agiria).

- 1536-IX-26an, Azpeitian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Goiazko Migel Goienetxea eta Aizarnako Maria Perez Potzuetakoa bildu ziren. Maria Perezek eta Lope Potzueta senar zenak Migelekin izandako tratuen kontuak garbitu zituzten, eta goiaz-tarrak Maria Perezi ordainagiria eman zion. Lekuko honako hauek izan ziren: Bidaniko Joan Lopez Ibar-gandakoa, Zumaiaiko Martin Intxaurregi eta Zestoako Martin Arano (ikus [XVI. m. (36-IX) 8] agiria).

- 1536-X-10ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Joan Perez Elorriagakoak ordainagiria eman zion Arroako Pedro Otalorari. Joan Perez, hain zuzen, Zumaiaiko Joan Izetaren prokuradorea zen. Joan Izetak lehenago mandoa saldu zion Pedro Otalorari, eta honek prokuradoreari prezioaren azken zatia (3,5 dukatekoa) ordaindu zion (ikus [XVI. m. (36-X) 5] agiria).

- 1536-X-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Aizarnatea-Amas eta emazte Maria Aizarnatea elkartu ziren. Domingok eta Mariak auzia zuten Zestoako Sebastian Artazubiagarekin, eta ahalordea eman zieten honako hauei: Domingo Amasi eta Gipuzkoako korrejimenduko Jeronimo Atxagari, Joan Lopez Etxanizkoari, Joan Martinez Untzetakoari, Beltran Arizmendiri eta beste bost prokuradoreri.

Lekuko Martin Arzallus, Migel Artazubiaga eta Joan Ibañeta zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 12] agiria).

- 1536-XI-21ean, Zestoako errebaletan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Iribarrena eta De-



1.26. irudia. Azpeitiko Antxieta etxea.

bako Domingo Olea azaldu ziren. Domingok Pedrori 4 dukat eta 8 erreal balio zuen zamaketa-zaldia, bere uhal eta kartolekin, saldu zion. Zor hura hurrengo Domu Santu egunean ordainduko zion Pedrok. Lekuko Debako Martin Artzuriaga eta Zestoako Joan Urbieta eta Beltran Urbieta izan ziren (ikus [XVI. m. (36-X) 15] agiria).

- 1536-XI-18an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren bidez Zestoako Fernando Zubeltzuk Joan Etxeberriari ordainagiria eman zion. Lehenago, Joane-k Fernandori Getariako Sebastian Zabalaga eskribauaren aurrean 3 dukat eta 2 errealeko zorra egin zion. Egund hartan, ordea, zorra eta auzi-gastuak ordaindu egin zizkion, eta zestoarrak ordainagiria eman zion. Lekuko Domingo Errezusta, Domingo Areitza-ga eta Anton Garate zumaiarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (36-XI) 7] agiria).

1.1.19. Gipuzkoako Batzarrak eta beste zenbait gai

Apirilaren 19tik maiatzaren 9a arte Zestoan izan ziren urte hartan Probintziaren lehen Batzar Nagusiak, Alonso del Barco korrejidorea bertan zela. Bertan ziren, halaber, zestoar hauek ere: Esteban Artazubiaga alkatea, Migel Artazubiaga fiela, Joan Perez Idiakaizkoa, Joan Gartzia Lasakoa, Joan Martinez Amilibikoa, Blas Artazubiaga, Fernando Olazabal maisua, Domingo Lizarrats, Beltran Arizmendi eta Martin Indo.

Batzar Nagusi haietako lehendakari Zestoako San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa lizentziatua izendatu zuten². Zenbait gai aztertu zituzten egun haietan, eta hemen gutxi batzuk baino ez ditugu aipatuko.

Probintziak berreroa eduki behar zuela erabaki zuten. Flandesko kontsuletxeaz erabakitakoa betetzea onartu zuten. Donostia eta Hondarribia gotortu egingo zituzten, erabakitakoaren arabera. Erregeari eskea egingo zioten bi hiribildu horiek, armadako konpainietatik soldadu gipuzkoarrak bota ez zituzten.

Zumaiako hiribilduak eskea egin zion Probintziari. Hain zuzen Oikiako zubia egiteko lekua aldarazi egin zioten, eta horrela kostua handitu egingo zitzaien. Zestoako hiribilduak guztira 12 dukat ematea proposatu zuten. Zubia hilabeteko epean hasiko ziren eraikitzen, eta amaitu arte ez ziren lanak etengo.

Uholdeak Zestoako Urbietan (Txiribogan) zubia eramane zuten (Zestoa eta Zumaia edo Aizarnazabalen artekoa) eta Saiatzko alkatetza nagusikoek berreraiki zezatela eskatu zuten. Zestoak zioenez, hari ez zegoen konponketa eta zubi hartara zihoan bidea ez zen publikoa.

Eskea egingo zioten erregeari "Frantziara" Bizkaitik burdin mearik joan ez zedin, han burdinazko pilotak egiten zituztelako eta Gipuzkoarentzat kaltegarria zelako. Zestoako hiribilduari baimena eman zioten bere gastuetarako 50.000 marai biztanleei kobra ziezazkien.

Arrasateko ordezkariak eskea egin zuen, Gipuzkoako korrejidorearen egoitza txandaka Azpeitian eta Azkoitian baino egon ez zedin, haientzat Tolosa eta Donostia urrutitatu zeudelako. Korrejidoreak erregearen agindua beteko zuela erantzun zuen. Urtean zehar Azpeitian, Azkoitian, Tolosan eta Donostian (leku bakoitzean hiru hilabetez) egoten zen korrejidorearen egoitza.

Zarautzen desadostasunak zituzten bertako Domingo Amilibia eta Bernaldino Olazabalek bertako erroldako eskribautzei buruz. Erregeari eskea egingo zioten Domingo Amilibia zestoarra Zarauzko erroldako eskribau bizialdi osorako izenda zezan. Lehengo Martin Joan Mendia eskribau zenak izandako postuaz zen auzia.

Donostiako Joan Bidaori eta lagunei gutunak eman zizkieten, Galiziara baleak harrapatzera joaten zirelako. Azkenean Zestoak Blas Artazubiaga eskribaua izendatu zuten Gipuzkoako hiribildu eta alkatetza nagusiek sukaldeka ordaindu behar zutena Probintziarentzat jaso zezan, eta hurrengo udazkenean Seguran izango ziren Batzar Nagusietan entregatuko zuten bildutakoa³.

Amaieran Probintziak ordaintzeko gastuen eta sukaldeka proportzioan jaso beharrekoen zerrenda egin zuten. Guztira 120.527 maraiko gastua egin zuten Probintziak. Ordaintzeko 2.287 sukalde zeudenez gero, bakoitzari 52,5 marai zegozkion².

Hurrengo Batzar Bereziak Basarten, Usarragan eta Hernanin egin ziren, eta hurrengo Batzar Nagusiak Seguran ospatu ziren, azaroaren 14tik 24ra bitartean. Hainbat gai jorratu zituzten. Joan Saez Aranburukoak, adibidez, Sevillan esklabo beltza erosi behar zuen, Probintziako berrero izan zedin. Donostia eta Hondarribia gotortzeko eskea egingo zioten erregeari; baita burdin mea erreinutik kanpora ez ateratzeko ere.

Antonio Atxagak eta Sandobal Ibarrek gerra garairako Baiona, Lapurdi eta Capbretongoekin egindako akordioen berri eman zieten. Bordelekoek ez omen zituzten baldintza haiek onartu eta akordiotik kanpo geratu omen ziren.

1.27. irudia. Zarauzko
Narros jauregia.



Probintziako ordezkariak eskea egingo zioten erregeari Gipuzkoako korrejidorearen agintaldia luza zezan. Bergara, Mutriku eta Elgoibarrek gai horretaz beren iritzia geroago emango zuten.

Blas Artazubiaga zestoarrari, Probintziako sukaldekako dirua kobratu zuenari, 459 marai ematea agindu zuten, haren aurkako akatsa egon zelako. Guienako gobernadore eta Bordeleko artzapezpikuak eta Baionako gobernadore San Bonet jaunak Probintziari eta korrejidoreari bidalitako gutunez hitz egin zuten. Joan Ibarbia marinel “frantsesa” preso omen zegoen Gipuzkoan, baina Lorentzo Aranguren eta beste gipuzkoar batzuk Bordelen omen zeuden preso. Baiona eta Gipuzkoaren arteko ituna hausten omen zuten horrek. Preso guztiak askatzeko bidez erabakiak hartu zituzten.

Migel Beroiz Donostiatik Hendaiara eraman zutelako 1.428 marai eman zizkioten. Frantsesek frantsez proposatzen zutena jakinarazi behar zieten bere lagunei. Zazpi egunez egin zuen lan.

Azken Batzar Nagusiez gero Probintziak guztira agindako gastuak 233.441 maraikoak izan ziren⁴.

- 1536-VI-26an, hain zuzen, Andres Urdaneta ordiziarra Moluketara 1525ean abiatutako espediziotik Lisboa iritsi zen. Han berehala portugaldarrek konfiskatu egin zizkioten zeuzkan agiri guztiak, hau da, Gartzia Jofre Loaisakoaren eta Alvaro Saavedraren itsas bideak, mapak eta beste zenbait agiri.

Urte hartan Sevillatik Indietara bidaiak egiten ari ziren ontzi-maisuetako bat Pedro Areitzaga edo Arrizaga izenekoa zen⁵. Baliteke zestoarra edo debarra izatea.

Zumaian, berriz, itsasadarrean itsasontziak eraikitzeko Ontziola Nagusia 1536. urtean hasi zen lanean eta berrogei urtez iraun zuen⁶.

1536. urtean Martin Gartzia Oñatz-Loiolakoak bere etxeko maiorazkoa (1518. urteko errege-baimenaz baliatuta) osatu eta zehaztuta utzi zuen. Oñazko etxeak 21 saroi, 7 baserri, etab. zituen. Loiolako etxeak, berriz, bereak zituen 9 baserri, burdinolak, errotak eta Azpeitiko Soreasuko San Sebastian parrokiaren (eta honen mendeko 10 ermitaren) patronatua eta hamarrenak.

-Joan Ortiz Ganboa-Zarauzkoa, berriz, 1536. urtean hasi zen Zarautzen bere jauregia eraikitzen⁶⁷.

1.2. LEHEN KAPITULUKO OHARRAK

¹ XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Lapuerta. Pleitos fenecidos. 2.669/1 (190i, 356a, 358a-361a folioak).

² XX. Registro de la Junta General celebrada en la Villa de Cestona en el mes de Abril de 1536. Gipuzkoako Artxibo Orokorra. Tolosa JD AM 1,7. (2-4, 8-12. or.).

³ XX. Registro de las Juntas Generales celebradas por la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa en la Villa de Cestona del 29 de Abril al 9 de Mayo de 1536. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1935. (1, 2, 3, 5, 6, 8, 10, 12-15. or.).

⁴ LEMA PUEYO, J. A. eta beste. El triunfo de las elites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Gipuzkoako Foru Aldundia. Iturriak, 3. Donostia, 2002. (438-458. or.).

⁵ BERMUDEZ PLATA, C. Catálogo de pasajeros a Indias durante los siglos XVI, XVII y XVIII. Volumen II (1535-1538). Imprenta Editorial de la Gavidia argit. Sevilla, 1942. (501. or.).

⁶ ODRIOZOLA OIARBIDE, L. Historia de Zumaia. Zumaiaiko Udala. Zumaia, 1998. (351. or.).

⁷ ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (110, 127. or.).